



GOIERRITARRA



**Sanjoanetan
dantza eta brinko**



UDA HONETAN, ANTZIZAR KIROLDEGIAN

MURGILDU ZAITEZ

UDA HONETARAKO

AUKERA

FRESKAGARRIENA

Harlandu S. Coop batez ere profesionalen osatutako giza taldean oinarritzen den enpresa da. Bere azken urteetako esperientzia handia azken teknikekin lotu du diseinuan eta marmol, granito eta harrien akaberetan.

Horrela jaio da Harlandu, bere abangoardiako teknologiari inizatiba eta bere profesionalen taxua batu dizkion kooperatiba.



Marmolak
Granitoak
Harriak

Zubierreka industrialdea, 52 • LAZKAO
Tel.: 943 882 465 • Tel. eta faxa: 943 887 249

MARMOL, GRANITO ETA HARRI LANAK • SUKALDE ETA BAINUKO GAINAK • FATXADA ETA ZORUEN ESTALIAK • LAPIDAK



ACERALIA

SIDERURGICA ARISTRAIN OLABERRIA, S.L.

ALTZAIRUTEGIA eta LAMINAZIOA

PERFIL ESTRUKTURALAK

Serie Europearrak

Serie Ingelesak

Serie Amerikarrak

Serie Japoniarrak

Angularrak

Madril-Irun errepidea 419 Km.a
Tel.: 943 805 000

20212 OLABERRIA (GIPUZKOA)
Faxa: 943 880 404

E.mail: info@sao.es

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Josune Amonda-
rain, Urko Irastorza, Edurne Albi-
zu, Nagore Etxeberria, Agurtzane
Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gu-
rurtxaga, Joxepa Madariaga eta
Mikel Luzuriaga.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.600 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRA ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Ainitze Gorospe, Txinako Muztag-ata (7.546 m.) mendira

29 urteko Ainitze Gorospe ordiziarra, Txinako Muztag-ata mendia igotzeko asmotan abiatuko da ekainaren 25ean. Mendiak 7.546 metro ditu. Teknikoki ez omen da zaila, baina hotzak, elurak eta hai-zeak eragiten omen ditu zailtasunik handienak. Trabesia-ko eskiekin igoko du mendia Ainitzek.

Iruñako 12 laguneko espe-
dizio batekin doa Ainitze
Gorospe. Txinako Xinghiang
probintzian dago mendia,
Kun Lun mendikatean, Pa-
kistan, Rusia eta Afganistan-
go mugan. 'Izotzeko men-
dien aita' esanahi du Muz-
tag-atak, glaziar asko baitau-
de bertan.

1956. urtean igo zen lehe-
nengo aldiz mendia, oinez.
Eskiz, 1990ean. Espedizio
honetan, 12 lagunetatik 5ek,
Ainitzek barne, trabesiak
eskiz igoko dute; gainerako-
ek oinez. "Azken urteotan jo-

andako jendearen arabera,
nahiko modukoa da mendia.
6.000 metrora arte omen
daude zailtasun handienak;
bi glaziar elkartzen dira eta
grieta asko daude. Handik
aurrera eskiekin joatea nahi-
ko erraza omen da. Agobian-
te xamarra ere ba omen da,
gora eta gora, sekula ez de-
lako bukaerarik ikusten",
esan digu Ainitzek.

Ekainaren 25ean Bilbotik
hegazkinez abiatu eta uztai-
laren 29 inguruan daukate
etxera itzultzeko asmoa, 15-
18 egunean mendia igo on-
doren.

Unibertsitatean zebilela
sortu zitzaion mendizaletasu-
na Ainitzeri. "Trabesiak egi-
ten genituen Pirinioetan, en-
gantxatu, eta droga bat beza-
la bihurtu da". Pirinioetan,
Alpeetan... ibilia da eta iaz,
Nepalen 5.500 metroko men-
di bat igo zuen.

BOTA BERTSOA



Iker Zubeldia

(Goierriko bertso-eskolako
ikaslea)

Marco Pantani

Doinua: 8ko handia

Italiako maldetan gora
egin ditu hainbat saio
jendeak zion 'ez dek amutsa
bazijoak ze arraiot!'
behin tentaldian erori zan ta
maiot arroxari aio
uste ez arren gizajoari
ilea erori zaio.

Nahiz ta agian egingo zuen
medikuaren esana
Pantanik bere kontzientzian
eramango duen zama
erabateko itsukeria
irabazteko afana
ziztada batek zapuz lezake
egun askotako lana.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Arabar Errioxa ≠ Rioja Alavesa

Datorren igandean, ekainaren 20an, Araba Euskarazko edizio berri bat ospatuko da Arabar Errioxako lurretan. Euskal Herriko hegoaldera helduko da berrirero ere euskarazko festa eta berebiziko garrantzia izango du bertaraino ahalik eta jende gehien hurbiltzeak, eskualde honetan euskarak arnasa behar du eta. Euskarak arnasa hartu behar duela esaten dugunean ez gara soilik gogorarazten ari bertoko ikastolek dituzten behar ekonomikoak. Hauek garrantzitsuak dira, eta aurtengo Araba Euskaraz bil-dutako sosak gastu hoiei aurre egiteko erabiliko dira, batez ere garraio gastuak.

Arabar Errioxan 20 herri daude eta 50 kilometroko luzaera duen eremu horretan zentru bakarra dago DBHO-ko ikasketak euskal eredu

burutzeko: Lapueblako Assa Ikastola. Herri guzti horietako gazteei (Bianakoak barne) euskal hezkuntza ziurtatzeak izugarritzko esfortzu ekonomikoa eragiten du, batez ere kontutan hartzen badugu autobus sare bat antolatu behar dela herri guztietatik pasatzeko: autobusek egunero 341 kilometro egiten dituzte umeak ikastolara eramateko.

Baina euskarak arnasa behar du beste arlo batzuetan ere. Irakaskuntzarekin jarraituz, eta Arabako gainontzeko herrietan ematen den joera apurtuz, bertako eskola publikoetan erdarazko ereduak nagusi jarraitzen du izaten. Bertan matrikulatzen diren umeek euskara menperatu gabe bukatzen dute ikasketa zikloa, kasu askotan Logroñetik edo Harotik etorritako irakasleek ez baitute onartu nahi euskara Arabako hizkuntza dela.

Eta irakasle hauek gure

kulturaren aberastasuna ez badute onartu nahi, antzeko egoera ematen da bertako agintari publiko askorekin. Teorian, euskara herrialde osoan hizkuntza ofiziala bada ere, badirudi Arabar Errioxan ofizialtasun hori baino gehiago paperean jartzeko edota hauteskunderako diskurtsoetan erabiltzeko esaldi besterik ez dela. Arabar Errioxako biztanle askok esfortzu handia egin dute eta egiten dute euskararen alde, eta aldiz, bertako udaletatik —salbuespenak salbuespen— esfortzu hauek ez dira batere bultzatzen. Horrela, eskualde osoko agiri “ofizialak” —Mankomunitatea edota Kuadrilakoak barne— erdara hutsez idatzirik daude; upelategietako eta errepideetako seinalizazioak gaztelaraz soilik idatzirik daude; kultur eta gazteentzako ekintzak espainolez antolatutakoak dira, eta abar luze bat.

Antzeko egoera ematen da bertako komunikabideetan. Arabar Errioxako Kuadrilaren menpe dauden Radio Rioja Alavesan eta ‘Rioja Alavesa’ aldizkarian euskararen presentzia bertatik igarotzen diren kazetaritza ikasleen gogoak, euskararekiko konzientziakuntza eta prestakuntzaren arabera neur daiteke soilik. Berdin turismo programak, herrietako jai-programak edota txartelak argitaratzeko orduan: kultura zinegotziaren gogoaren menpe dago elebidunez egitea edota soilik gaztele-raz.

Hau guztiagatik eta beste mila arrazoiengatik 20an denok Lapueblan egon behar dugu. Euskararen zabalpenaren bitartez Rioja Alavesa Arabar Errioxa bihurtzeko.

Jesus Argote
(Errioxarra)

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 88 86 84 BEASAIN

UDA IKASTAROAK - UZTAILA 99

Kanpo irteerak egiteko aukera, Goierri ezagutuz eta euskaraz biziz

GOIZTIRI 

EUSKALTEGIA

IKASTAROAK		MATRIKULA EPEA	MAILAK	ORDUTEGIA
3 ASTEKOAK	4 ASTEKOAK	Ekainaren	Euskalduntzea	3 ordu: 10-1
Uztailaren	Ekainaren 28tik	25era arte	Alfabetatzea	4 ordu: 9-1
5etik 23ra	uztailaren 23ra		Sakontzea	5 ordu: 8,30-2
			EGA	

INFORMAZIO GEHIAGO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. 88 93 40

LAZKAO: Elosegi, 16. 88 93 40

Udalak ikasleei
matrikula suben-
tzionatuko die.



MUJIKI



BEASAIN 943 88 74 00

TXANDAKA

Udaletako gobernatzailleei

Kaixo eta ongi etorriak Goierriko Udaletako gobernatzaille berriok!

Alkate eta zinegotzi karguetan kide berriak, erabat berriak, zaituztegu batzuk eta lehen ere aritutakoak, 'zakur zaharrak', beste batzuk. Lehenengo eta behin pertsonak zaretela pentsatu eta sinestu nahi dut, alderdi politiko honetako edo hartako kide baino lehen pertsona eta herri-tar izango al zarete!

Batzuk ala besteak izan Udaletxeetara lanera sartu zaretenak, herriari eta herritarroi begira proiekturen bat izango duzue. Hauteskunde aurreko kanpaina hala adierazi diguzue behintzat talde eta alderdi politiko ba-koitzak.

Idatzi honen bitartez ez dizuet bizikletaz lasai ibili ahal izateko bide-gorriak egin ditzazuen eskatu nahi, ez dizuet osasungintzaren hobekun-tza aldarrikatu nahi, ez eta 35 lanordutako astea oinarri dela, guztiontzat lan duinaren alde saiatzeko esan nahi. Ez.

Nire eskaera, nire aldarrikapena, gaurkoan, hori guztia baino askoz ere simpleagoa eta zabalagoa da, baina ez dakit zergatik, zuen aurreko ia gobernari guztiei ahaztu egin zaie. Nahi baduzue esploi hau konpontze-tik hasi, nahi baduzue frontoia estali, nahi baduzue parke berria egin... baina otoi, **eska itzazue proiektuak euskaraz, egin itzazue aurrekon-tuak euskaraz, funtziona ezazue eguneroko lanean euskaraz!**

Lehenengo eta behin zuok, politikook, funtziona ezazue euskaraz eta, ondoren, zuen langileak jar itzazue euskaraz lanean: teknikariak, apare-jadoreak, idazkariak, kontratistak, garbitzaileak, atezainak, udaltzainak...

Euskal Herrian lan egin nahi duenak euskaraz jakin behar du, bere lan teknikoa euskaraz egiteko gai izan behar du. Bestela, noiz arte jarraitu behar dugu euskaraz ez dakien langilea kontratatu, berehala euskara ikasteko liberatu eta lanera itzultzen denean, nahiz eta jada euskaraz ja-kin, gazteleraz funtzionatzen segitzen duela ikusiz? Diru mordo ederrak ari gara alfer-alferrik gastatzen, erabilerari behar den garrantzia eman ez eta egindako lana ezkutuan utziz...

Gazteok presta zaitezte goi-mailako ikasketak ere euskaraz burutuz, Euskal Herri euskaldun batean lan egiteko.

Joxepa Madariaga



Zer erreko zenuke San Joan sutan?



Imanol Urrestarazu
32 urte, langilea
lazkaotarra

Kartzelak eta kotxe-ak.

Maite Antia
17 urte, ikaslea
beasaindarra

Ikasturte guztiko li-buruak.



Joseba Imaz
17 urte, ikaslea
beasaindarra

Jendearen arteko ha-serre guztiak.



KENDU S. Coop. Ltda.

Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan

Industrialdea, z/g
SEGURA

☎ 943 80 13 40
Faxa: 943 80 19 05

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

ZINEA

ORDIZIA:

'Lock&Stock'. Ostirala 18: 22:15; larunbata 19: 19:30 - 22:15.

'En las manos de Dios'. Igandea 20: 16:45.

'Tienes un e-m@il'. Igandea 20: 19:30 - 22:15; astelehena 21: 19:30.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Ekainak 25, Errail Antzerki taldearen 'Sukaldea' obra, Usurbe Antzokian, 20:30ean.

ZEGAMA:

Ekainak 20, San Adrian-go erromeri egunean, Sasietako sentsibilizazio kanpainaren barruan, Behi Bi's.

ORMAIZTEGI:

Ekainak 26, Behi Bi's, Sasietako sentsibilizazio kanpainaren barruan, arratsaldean.

MUSIKA

BEASAIN:

Ekainak 20, Musika Bandaren kontzertua Loinazko San Martin plazan, 13:00etan.

Ekainak 23, ikasturte amaierako Musika Eskolaren kontzertu berezia, Usurbe antzokian, 19:30ean.

OLABERRIA:

Ekainak 25, Oskorri eta 'Kristina eta Amaia' trikitilarien kontzertua, 22:00etan.

ORDIZIA:

Ekainak 26, Santa Ana abesbatzaren kontzertua, Elizan, 20:00etan.

SEGURA:

Ekainak 18, Kristina eta Amaia trikitilariak, 23:00etan.

Ekainak 26, Triki Ta Ke, 23:00etan.

ZALDIBIA:

Ekainak 19, Joseba Tapia eta Koldo Izagirrearen 'Apoaren edertasuna' ikuskizuna, 22:30ean, antzokian.

DANTZAK

BEASAIN:

Ekainak 23, San Joan zortzikoa, Ostadar dantza taldearen eskutik, Barrendain plazan.

SEGURA:

Ekainak 19 eta 20, Euskadiko XXIII. sueltoko dantza txapelketaren finalaurrekoa eta finala, 18:00etan, Baratzte pilotalekuan.

BERTSOLARIAK

BEASAIN:

Ekainak 29, Lizaso eta Egaña bertsolariak, 14:00etan.

OLABERRIA:

Ekainak 24, Peñagarikano eta Joxe Agirre, 12:15ean, Zezilionen. 18:30ean bigarren saioa egingo dute.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Ekainaren 18ra arte, Mikel Izagirrearen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Auto EASO



Ibabe industrialdea, 13 LAZKAO ☎ 943 16 30 15 ☎ 606 301 955

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterola, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA

GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean) ☎ 943 88 87 62 BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN

Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatx eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 ☎ 943 88 87 02 BEASAIN

Ekainaren 19tik uztailaren 23ra arte, Agustin Caballeroren grabatuen erakusketa, Aterpe tabernan.

Ekainaren 20ra arte, Bear Pintura tailerrekoen lanen erakusketa, Usurbe antzokian.

Ekainaren 25etik uztailaren 4ra, Buztina-Zeramika tailerrekoen erakusketa, Usurbe antzokian.

Ekainean zehar, Argizpi argazkilarien elkarteko bazkideen lanen erakusketa, Zinema tabernan.

ORDIZIA:

Ekainaren 30era arte, Jean Pierre Auberten pintura erakusketa, Barrenan.

Uztailaren 15era arte, Okupgraf99, 'Beste euskarriak, beste formatoak' panorama 2. parte hartzaileak erakusketa: Alfonso Albacete, Jon Mikel Euba, Xabier Laka, Juan Luis Moraza, Jose Luis Zumeta, Iñaki Barea...

Goierri ezagutuz

Goierri ezagutzeko txangoa antolatu du Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, ekainaren 26rako. Egitaraua:

Goizeko 9etan Lazkaoko plazatik abiatu eta Sasietako zabortege kontrolatua ikustera joango dira. Ondoren, Legazpiko ontzien sailkapen planta ezagutzera joango dira.

Eta azkenik, Ormaiztegi-ko Zumalakarregi museora joango dira. Hau guztia, 200 pezetaren truke. Izenematea ekainaren 24a baino lehen egin behar da, 943-886500 telefonoan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Ekainak 20, Kalamua - Arrate. **Ekainak 27**, Amo - Mutriku.

Ordiziako mendizaleak:

Ekainak 20: Larraitx-San Miguel. **Ekainak 26**: XLIV. Ordizia-Orio martxa.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Neska bat behar da Iruñean pisua osatzeko. Unibertsitateetatik oso gertu. 943-653269. Maialen.

☐ Bi neska ikasle behar dira Bilbon pisua osatzeko. Deustun kokaturik dago, unibertsitateetatik gertu. Oso alaia eta merkea. 617760857 / 943 887359 (asteburuetan).

☐ Etxebizitza salgai Segurako herrian, ongi kokatua. Salneurri eroso eta nahi izanez gero, baratza eder batekin. 943 801427 (Enara).

☐ Pisua salgai Itsasondon. 943 887482.

☐ Oropesan apartamendua alokatzen da. Hondartzaren ondoan eta igerilekuarekin. 943-884374 / 943-882156.

☐ Etxea alokatu edo erosi nahi nuke. 943-287300 (goizetan); 943-830270 (arratsaldetan).

Salerosketak:

☐ Txakurrak oparitzen dira. 943 16 0402.

☐ Akordeoia salgai. Pignini-Convertor 42 B. Erdi prezioan. 943 465724.

☐ Monty bizikleta salgai. Zilar kolorekoa eta egoera onean. 25.000 pezetan. 943 889634. 12:30etatik 14:00etara deitu.

☐ Pianoa salgai. 88 tekla, sordinarekin, 1,10 zm. altura, soka gurutzatuak, gako metalikoak, hupfle. Made in Alemania. 150.000 pezetan. 943.881096. (Bakarne).

APIRILEAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- Haizea mindu gabe
Jon Gaztelumendi (Susa)
- 2- Esku bakarrarekin irakurtzeko kontuak
Pilar Cristobal (Txalaparta)
- 3- Berandu da gelditzeko
Unai Iturriaga (Susa)
- 4- Laura kanpoan da
Jabier Muguruza (Erein)
- 5- Izurri berria
Gotzon Garate (Elkar)

DISKORAK:

- 1- Fermin Muguruza
'Brigada Sound System'
(Esan ozenki)
- 2- Alaitz eta Maider
'Inshala' (Elkar)
- 3- La venganza de al abuela
'La venganza de al abuela' (Gor)
- 4- Koma
'El catador de vinagre' (Gor)
- 5- Bide ertzean
'Zure minari' (Gaztelupeko hotsak)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Ekainak 19-20: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain) 943880232.

Ekainak 26-27: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia) 943160949.

Olagi Sagardotegia



Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
© 943 88 77 26 ALTZAGA

IKASTEK AKADEMIA

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan
☎ 943 160 120
Joan Iturrlalde, 5
BEASAIN

1999 UDA

Unibertsitate maila:
✓ Ingeniaritza
✓ Enpresa zientziak
✓ Fisika eta kimika
✓ ...

Logse (I eta II):
✓ Ikasgai guztiak
✓ Ekaina - uztaila - iraila
✓ Selektibitatea

Lehen eta bigarren hezkuntza:
✓ Ortografia
✓ Kalkulua eta buruketak
✓ Testuaren lanketa
✓ Ikasketa teknikak

Kurtsoan ondo gainditu gabeko gaien lanketa
Datorren ikasturterako prestatuta
Eskatu informazioa orain!

ERREZETA




Mari Karmen Katarain
Urkiola erretegia
Beasain

ESPARRAGO NATURALAK ARRAUTZEKIN

Zuritutako esparragoak egosten jarri, irakiten dagoen uretan. Ura-ri gatza eta oliba-olio txorrotada bat bota. 15 minutuz eduki.

Behin egosita, ur piska bat kendu eta gelditzen den uretan aurratzak bota (pertsonako arrautza bat), ur irakinetan egin daitez-zen edo eskalfatzeko. Taparekin estali eta 5 minutuz utzi irakiten.

Ondoren ura kendu eta azpil batera atera arrautzak eta esparragoak. Olio-ozpinarekin edo binagretarekin eta oliba-olio on batekin sueztitu edo erreogatu, eta perrexil piska batekin hau-seztatu.




Mikel Luzuriaga
Mikel optika

Begiaren akats errefrakti-boa da miopia, infinito te-oriotik datozen izpiak erretinaren aurrean enfo-katzen direnak (1) eta di-bergente sartzen diren iz-piak erretinarendik gertuen dagoen fokoan osatuko dira. Horregatik pertsona miopeak gaizki ikusiko ditu infinito teo-riko horretan kokatuta dau-den objektuak, baina gertu-ko puntu (P) bat egongo da eta bere ikusmena zuzena izango da.

Miopia proportzio han-dienean asiarren artean eta ikasketak dituzten pertso-nen artean ematen da. Ba-tzutan kirola, aire zabaleko ekintzak egin nahi ez, eta irakurketara edo ordena-doreko jokoetan babesten

AHOLKUA

Miopia



den umearengan, miopia bat dagoela susmatu daite-ke. Haurrek beti argitasun oneko baldintzetan "lan" egin behar dute eta irakur-keta luzeetan, tartekako atsedanaldiak egin.

● Miopiaren sailkapena:

Dioptrien arabera:

- ✗ Arina: hiru dioptria arte.
- ✗ Ertaina: lautik bederatzi dioptria bitartean.
- ✗ Handia: bederatzi diop-triatik gora.

Ikusmenaren aldetik:

- ✗ Axiala: begiaren azke-naurreko diametroaren handitzea (ohikoena da).
- ✗ Kurbadurarena: kornea-ren edo kristalinoaren kurbaduraren handitzea-gatik.
- ✗ Indizearena: begiaren potentzia errefraktiboaren handitzeagatik.

● Miopiaren neutralizazioa:

- ✗ Betaurrekoak.
- ✗ Ukipen lenteak: aban-taila fisiko eta kosmeti-koez gain, ikusmen gaita-suna hobetzen dute.
- ✗ Kirurgikoa: edozein tek-nika kirurgiko izanda ere, dioptrien eboluzioa ez du aldatzen ez eta prozesua-ren balizko konplikazioe-na ere.

● Balizko konplikazioak:

- ✗ Glaukoma: begi barruko tentsio altua.
- ✗ Kataratak: adin nagusi-ko pertsonetan azaltzen da.
- ✗ Erretina-askatzea: bitre-oerretina inguruaren oke-rrera egitearen ondorioz.
- ✗ Arrazoi hauengatik per-tsona miopeak aldizkako azterketak egin behar di-tuzte.

GOIKOM
GOIERRIKO KOMUNIKABIDEAK S.L.L.



Komunikazio aparatu, ekipo eta sareen mantenimendua, instalakuntza, konponketa eta hobekuntzak.

☎ 943 88 22 59 Faxa: 943 16 08 69
e-mail: goikom@teletel.es
Oriamendi, 11 behea - BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



IBAI-ONDO

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g **BEASAIN**



egunerokoak

Erabili eta botatzeko lentilla

Eta gainera,
90 egunerako
lentillak erosita,
poltsa hau zuretzat



2.400 pta

**BAUSCH
& LOMB**

proba itzazu!
Erabili eta botatzeko
lentilla

hilabetekoak

Dohaineko proba!



Promozioa 1999ko uztailearen 15 arte

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - **BERGARA** - Tel. 943 76 15 75
J. Carlos Guerra, 1 - **ARRASATE** - Tel. 943 79 29 95
J. M. Barandiaran Enp - **ORDIZIA** - Tel. 943 88 99 88

Eta 3 hilabeteko
"pack"-a erosita
toaila hau zuretzat



UDA KO ARRAKASTATSUENAK

Ofertak, 99/6/30 -rarte iraunkarrak



- MoviStar PLANAK
- ELECCION kontratua
- MoviStar Activa AURREZ ORDAINDUTAKO
- MoviStar ESKAINTZA

movitel2000

Distribuidor oficial:
MoviStar

**MoviStar
activa**

**3.000 ppta.
DOHAINIK ***

*10.000 ppta. karga berriro
egiten duzun bakoitzean.

**Planes
MoviStar**

- Kontraturik gabe, kuotarik gabe.
- Segundoko fakturazioarekin.

50% DOHAIN

* PLANeko lehenengo iru
hilabeteetan

**Elección
MoviStar**

- Azkenean tarifa murriztuaren ordutegia zeuk aukeratzeko duzu
- Segundoko fakturazioa, bidezkoa ordaindu.

12 ppta./min. *

*Zuk aukeratzeko dituzun 3 ordutetan

Uda honetan, zoazen lekura
zoazela, egunzatitik
egunsentira hitz egingo duzu

MoviStar-en alta ematerakoan
12.000 PZTA.
OPARITUKO DIKIZUGU
deletan

*Baldintzak galdetu.

movitel2000

Mugikortasun Digitaleko Zentroak

Toribio Alzaga - DONOSTIA - ARCCO.ren parean - Tel.: 943/46 09 63
Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943/ 80 50 89

Banatzaile ofiziala:

MoviStar

www.movitel.com

Ekainaren 13ko hauteskundeak emaitzak Goierrin

Udal hauteskundeetako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetako emaitzak dituzue beheko taulan. Udal hauteskundeetako zenbakien ondoan gorritz azaltzen diren zenbakiak, zinegotzi kopurua adierazten dute. Behin herriaren iritzia jakin ondoren, uztailearen 3an, datozen lau urterako uda-

lak osatuko dira. Gaintzan, 6 hilabete beranduago egin beharko dituzte lanak, kandidaturarik aurkeztu ez delako.

Batzar Nagusietako hauteskundeetan Goierriri dagokion hautesdeetan 'Oria' zirkuskripzioan, EAJ-EAk 5 batzarkide lortu ditu; EHk 3; PPk 1; eta PSE-EEk 1.

HERRIA	ZENTSOA	EAJ/EA	EH	EAJ	EA	PSE-EE	PP	IU	BESTE
ALTZAGA	85	-	-	-	-	-	-	-	58/1
BATZAR NAGUSIAK	85	21	41	-	-	0	0	0	0
ARAMA	152	-	-	-	-	-	-	-	83/5
BATZAR NAGUSIAK	152	40	62	-	-	2	3	0	1
ATAUN	1.436	-	565/4	-	-	-	-	-	570/5
BATZAR NAGUSIAK	1.436	508	604	-	-	4	6	8	3
BEASAIN	10.253	2.973/8	1.643/4	-	-	1.199/3	682/2	233/0	-
BATZAR NAGUSIAK	10.253	2.834	1.632	-	-	1.174	775	242	83
EZKIO-ITSASO	471	-	206/4	-	-	-	-	-	204/3
BATZAR NAGUSIAK	471	189	210	-	-	2	7	1	0
GABIRIA	380	-	-	-	-	-	-	-	294/7
BATZAR NAGUSIAK	380	207	94	-	-	2	2	0	0
GAINTZA	115	-	-	-	-	-	-	-	-
BATZAR NAGUSIAK	115	34	37	-	-	0	2	0	0
IDIAZABAL	1.795	-	337/3	219/2	725/6	-	40/0	-	-
BATZAR NAGUSIAK	1.795	845	370	-	-	31	63	9	7
ITSASONDO	534	-	281/7	-	-	-	16/0	-	-
BATZAR NAGUSIAK	534	119	217	-	-	9	11	3	1
LAZKAO	4.044	1.115/5	971/4	-	-	333/1	220/1	130/0	-
BATZAR NAGUSIAK	4.044	1.058	987	-	-	363	246	110	9
LEGORRETA	1.221	403/5	330/4	-	-	49/0	38/0	-	-
BATZAR NAGUSIAK	1.221	409	295	-	-	62	47	7	4
MUTILOA	155	-	-	-	-	-	-	-	77/5
BATZAR NAGUSIAK	155	43	37	-	-	0	3	1	1
OLABERRIA	879	-	192/2	-	-	77/1	63/0	-	286/4
BATZAR NAGUSIAK	879	191	185	-	-	111	102	21	5
ORDIZIA	7.704	1.850/5	1.617/4	-	-	729/2	577/1	341/1	-
BATZAR NAGUSIAK	7.704	1.793	1.587	-	-	739	648	317	41
ORMAIZTEGI	980	520/6	260/3	-	-	-	6/0	-	-
BATZAR NAGUSIAK	980	467	276	-	-	14	22	5	0
SEGURA	1.060	-	366/4	172/2	326/3	-	3/0	-	-
BATZAR NAGUSIAK	1.060	518	336	-	-	9	14	1	2
ZALDIBIA	1.307	-	683/9	-	-	17/0	57/0	-	-
BATZAR NAGUSIAK	1.307	186	637	-	-	59	34	10	2
ZEGAMA	1.134	528/5	367/4	-	-	-	9/0	-	-
BATZAR NAGUSIAK	1.134	502	365	-	-	8	23	1	2
ZERAIN	209	-	-	-	-	-	-	-	152/5
BATZAR NAGUSIAK	209	96	73	-	-	0	0	1	1
GUZTIRA	33.915	7.389/34	7.818/56	391/4	1.051/9	2.404/7	1.711/4	704/1	1.724/35
BATZAR NAGUSIAK	33.915	10.060	8.045	-	-	2.589	2.008	737	162

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGA



Ordiziako Kutxa, Abaria etxean

Ekainaren 8az geroztik, Urdaneta kaleko eta Kale Nagusiko Kutxako bi bulegoak, Plaza Nagusiko Abaria etxean daude. Abaria etxea berreskuratu du Kutxak, Udalaren laguntzarekin. Ekainaren 8an egin zen inaugurazioa eta bertan agintariek adierazi zuten, Kutxako bezeroek eta Ordiziak irabazi dute Abaria etxea berritzearekin. Batetik, bezeroek bulego modernoak eta zerbitzua hobea izango dutelako, eta bestetik, XVII. mendeko etxea Ordiziarentzat berreskuratua izan delako.

Mikel Zumarraga

Ormaiztegiko presoa ekainaren 10ean libre gelditu zen, 13 urte kartzelan egon ondoren. Azkeneko urtean Iruñako kartzelan egon da. Zigorren 3/4 bete zuen Zumarragak.

CAF

Aurtengo urtean, maiatza arte, 15.125 milioi pezetako salmentak izan ditu CAFek. Horri esker, 751 milioi pezetako irabaziak jaso ditu epe horretan. Iazko urtea ere ona izan zen: salmentek %6,5 egin zuten gora, eta irabaziek, berriz, % 3,5. Era honetan, akzioeko 168 pezetako dibidendoa ordainduko die CAFek akziodunei. Orotara 577 milioi pezeta bideratuko ditu dibidendoak ordaintze-

ra. CAFekoentzat lehentasunezko merkatua da orain Estatu Batuetakoa, Washingtonetik eta Sacramentotik jasotako bi eskari garrantzitsu baitauzka. Marylanden eta Kalifornian planta bana martxan jartzea aztertzen ari dira.

Maria Dolores Ondarra

Gabiriako Maria Dolores Ondarra, 73 urteko amona, Maixa eta Ixiar trikitilari taldearen bideo klipetan, Mike-leren papera beteko du.

Araba Euskaraz

Ekainaren 20an Lapuebla de Labarkan ospatuko den Araba Euskarazera joateko tren bereziak antolatu dituzte. Beasaindik, goizeko 9:43ean paatuko da. Itzulerako tren,

'Ruta Quetzal Argentaria' Goierriin

Miguel de la Cuadra Salcedok antolaturiko Ruta Quetzal Argentaria Goierritik pasako da ekainaren 25ean. 350 neska-mutil amerikar, 30 begirale eta 30 kazetari etorriko dira.

Goizeko 11,30etan iritsiko dela espero da, San Adriango aterpetxera. Ongi-etorria egingo zaie bertan, Fermin Leizaola eta Micaela Portillo katedradunak mintzatuko dira Santiagoko Bideari buruz.

13:30ean, Beundeko zelaian bazkaria izango dute. 16:00ak aldean, Otzaurtetik autobusez Zegamara jaitsiko dira. Zegamako udal ordezkariak harrera egingo diote, aurrekuarekin. 6ak aldean Segurara iritsiko dira. Hemen ere ongi-etorria egingo zaie eta euskal kirolaren eta kulturaren erakustaldia izango dute bertan: dantzariak, zantantzarrak, harrijasotzaileak, trontzalariak... Goierritik Hendaiara abiatuko dira.

19:40ean abiatuko da Fuenmayorreko geltokitik. Beasaina 22:12era iritsiko da.

Urdaneta - Oianguren: 25. urteko ospakizunak

Ordiziako Urdaneta-Oianguren eskola publikoaren urteurrena ospatzeko festa izan zen ekainaren 5ean. Argazki

erakusketa, ikasle ohien arteko kirolak, hildako irakasle, ikasle eta kontserjeen aldeko meza, ikasleentzat bazkaria, gaztelu puzgarriak, ikasle ohi, guraso eta irakasleentzat bazkaria, ikasle ohien antzerki saioa, dantzaldia... denetik izan zuten okasioak eskatzen zuena ospatzeko.



XII. Agostinho Memoriala

Gazte Asanbladak antolaturik XII. Agostinho Memoriala jokatuko da uztailaren 3an, arratsaldeko 3,30etan hasita. Memoriala hasi aurretik, Beasainen, bizikletan zihoala kamioiak harrapatu eta hil zen Junkal Gili omenaldia egingo zaio, dantzariarekin. Ondoren, Zaldibia aldera joko du bizikleta martxak Larraitzik, Abaltzisketara, Alegian lasterketa bukatzeko. Indarrak hartzeko lasai-lasai Itsasondora joan eta handik Ordiziara, erlojupekoa jokatuko dute.

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1


943 88 51 68

ORMAIZTEGI

XEGUNDO GALARZA MUSIKARI SEGURARRAK 50 URTE DARAMATZA PORTUGALEN

"Pianoari esker mundua ezagutu dut"

Xegundo Galartza Segurako pianista ospetsua, duela 50 urte joan zen Portugalera. Aurretik Donostian egin zituen lehenengo urratsak, Nautiko eta Teniseko Klubetan. Jende ospetsu ugari ezagutzeko aukera izan zuen eta Portugalerako atea ere bertan iriki zitzaion. Aita Jazinto Galarza txistulari ospetsua zuen; Xegundok, ordea, txistua ikasi beharrean, pianoa ikasi zuen. Pianoari esker, mundua ezagutu du Xegundok, eta baita munduko goi mailako pertsonaia ugari ere. Lazkaon elkarrizketatu genuen segurar unibertsala.



Aitak (Jazinto Galarza txistularia) horrela esaten omen zion: "ikas ezak behintzat txistua jotzen, eta nahikoa oilasko jango dek herrietako festetan". Oilaskoa jan beharrean, pianoari esker, mundua eta pertsonaia ospetsu ugari ezagutzeko aukera izan du.

Txistulariaren semea. Aitak behin eta berriz txistua jotzen ikasteko esan bazion ere, Xegundok pianoari heldu zion. Aitak horrela esaten omen zion: "ikas ezak behintzat txistua jotzen, eta nahikoa oilasko jango dek herrietako festetan". Oilaskoa jan beharrean, pianoari esker, mundua eta pertsonaia ospetsu ugari ezagutzeko aukera izan du.

Segurako eskolan solfeo eta pianoa jotzen ikasteko aukera izan zuen, 6 bat urte zituela. Segurako eliza-

ko organistarekin eman zituen lehenengo urratsak. Etxean pianoa erosi zioten eta orduak eta orduak eman zituen teklak astinduz.

Ordizira txirrinduz

Beasaingo Kontserbatorioan eta Ordizian ere hartu zituen pianoko klaseak, Bilbora joan aurretik. Txirrinduz joaten zen Seguratik Ordiziara eta Xegundok airtortu digunez, oso ondo moldatzen omen zen txirrinduan.

Txiki-txikitatik azaldu zuen pianoarenganako zale-

tasuna. 6 bat ordu jotzen zituen egunero. Behin baino gehiagotan herriko jendea Xegundoren pianoaren doinuak entzun eta tarareatzen edo txistua jotzen jartzen zen. Pelotan ibiltzea asko gustatzen zitzaion, eta pianoa jotzeko pelotan jokatzea bateragarria ez denez, pelota utzi zuen.

Piano ikaketak

"Sekula ez nuen pentsatu pianista izango nintzenik. Baina ikasten hasi eta aurrera jo nuen. Bilbon karre-
ra guztia egin nuen. 5 urtean egin nituen ikasketa guztiak", esan digu Xegundok. "Nik uste, piano karrera ingeniari karrera baino zailagoa dela. Nirekin Bilbon ingeniari ikasten ari zirenak zeuden eta azkenengo momentuan ikasita aprobaten zuten. Nik egunero ordu pilo bat jo behar izaten nituen. Egundok jo behar da pianoa, bestela nabaritu egiten da".

Ordutik aurrera kontzertu ugari eman du munduan barrena Xegundok. Donostiako Klub Nautikoan eta

KALITATEKO
EUSKAL
OKELA

**EROSLE
GOIKO**

- Ordiziako Gazta Txapelketako irabazlearen gazta
- Etxeko arkumeak
- Bertako haragia

Zurbano, 8 ☎ 943 800326
SEGURA

**ANTONKALE
EDARITEGIA**

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!

IMAZ Jatetxea

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

Kale Nagusia, 27

☎ 943 80 10 25

SEGURA

Festa zoriontsuak igaroi!

Tenis Klubean pianoa jotzen egin zen ezaguna. Beste bi lagunekin batera jotzen zuen. Enbaxadoreak, polti-koak eta gizarteko goi mailako jendea bertan biltzen zen eta oso ospetsua egin zen Xegundo. 1948an, Portugalera joateko eskaintza egin zioten eta onartu egin zuen segurarrak. 24 urte zituen orduan. Estorilgo Kasinoan jotzeko kontratua egin zioten. Harrezkero Portugalgo hotel eta leku garrantzitsu askotan jo izan du.

Estatu Batuetan, El Cairon, Kanadan, Buenos Airesen, Hong Kongen, Angolan, Hego Afrikan... joa da. Hong Kong asko gustatu zitzaion Xegundori. *"Hotel batean jo nuen eta 22 rols roys kontatu nituen kanpoan"*.

Entzuteko musika, saloiko musika, dantza egiteko musika jo ohi izan du Xegundok. Pianoak, gitarrak, bajuak eta bateriak osatzen zuen 'Shegundo Galarza e seu Conjunto' taldea. Portugalgo musikari indar handia eman zion Xegundok. Beti ere goi mailako jendearentzat jotzen zuen. Festa haiek



"Pianistok ez daukagu jubilaziorik, orain ere pianoa egunero jotzen dut".

oso nekagarriak izaten omen ziren, gaueko 10ak aldean hasi eta goizeko 6ak ingurura arte jo behar izaten zuten. Hala ere, oso festa animatuk izaten omen ziren.

Jende handi asko ezagutu izan du pianistak: besteak beste, Thailandiako erregeak, gaur egungo Juan Carlos Espainiako erregea, Edinburgoko printzea, Abissiniako enperadorea, Eisenhower, Kubitschek...

Portugalen telebista sortu zenean, Xegundo Galarzak 20-25 minutuko saioa aurkezten zuen. Musikari buruzkoa zen eta garai hartako

musikarien laguntzaile lana egiten zuen. 300 bat saio egin zituen.

1981ean Eurovision kantu lehiaketan, Portugalgo orkestra zuzentzen ere izan zen Xegundo Dublinen.

Bizimodu gogorra

Mundua eta jendea ezagutu bai, baina Xegundok aitortu digunez kontzertista baten bizimodua oso gogorra da. *"Dena memoriz jo behar izaten da eta dena ondo egiteko egunean 8-10 orduz jo behar da pianoa. Pianista askori memoria falta izaten zaie. Partiturekin ondo moldatzen dira, baina memoriz jotzeko ez dute balio"*. Ho-

rretaz gain, batean eta beste ibili behar izaten dira, kontratua han eta kontratua hemen. *"Pianistok ez daukagu jubilaziorik"*. 74 urte ditu eta oraindik ez da jubilatu. *"Orain ere pianoa egunero jotzen dut, baina, konposizio gutxiago egiten dut orain"*.

Disko ugari

Disko ugari kaleratu ditu Xegundo Galarzak. 52 LP baditu bereak direnak. Laguntzaile bezala parte hartutakoak askoz ere gehiago. Euskarazkoak ere baditu tartean: Akelarreak eta Aita Donostia musikariarenak, besteak beste.

Orain bere semearekin musika estudioa dauka martxan. *"Semea arkitektura ikasten hasi zen baina batera jotzea asko gustatzen zitzaion. Dena utzi zuen eta musikari heldu zion. Auto-didakta da. Diskoen produkzioan lan egiten du eta telebistarako musika asko konposatzen du Portugalgo telebistan. Barrio Sesamo, Jardin de la Celeste..."*. Euskadi Irratiko sintoniaren bat ere egina da.



OTATZA SAGARDOTEGIA

Uda garaian erretegi moduan ere zabalik, terraza eta guzti

Zatoz probatzera!

Astegunetan eguerdietan itxita, astelehenetik asteazkenera itxita, hauetan enkarguz irekitzen da.

☎ 943 80 17 57 ZERAIN

JUANKAR

✳ Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe

✳ Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 939 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

IZKINA

TABERNA - JATETXEA

Eguneroko bazkari eta afariak

Zurbano, 17

Tel.: 943 80 00 51

SEGURA



N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

San Joan jai luzeak Seguran

Ekainak 18, ostirala:

19:30ean: Jubenil mailako txirrindulari proba: Gipuzkoako Itzulia, erlojuaren aurkako proba.

23:00etatik goizalderarte:

Kristina eta Amaia, txozna eta tabernariak antolatuta.

Ekainak 19, larunbata:

10:00etatik 12:00etara eta

18:00etatik 19:00etara:

Gipuzkoako bola eta toka txapelketa.

17:00etan: Herriko haurrek aurkeztutako txotxongilo saioa plazan.

18:00etan: Euskadiko XXIII. sueltoko dantza txapelketaren finalaurrekoa, Baratze pilotalekuan.

23:00etatik goizalderarte: Ostadar-rak.

Ekainak 20, igandea:

10:00etan: Kalejira herriko txistulariekin.

13:00etan: Segurako txistularien Alardea, 'Segurako Alborada' ren doinuaz. Ondoren, kontzertua plazan.

18:00etan: Euskadiko XXIII. sueltoko dantza txapelketaren finala, Baratze pilotalekuan.

19:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

Arratsalde eta gauetz: Dantzaldia Kirkil txarangarekin, ondoren kalejira.

Ekainak 23, asteazkena:

San Joan bezpera:

18:00etan: Umeen danborrada Oria txarangarekin.

23:00etan: San Joan sua,



Arbola bedeinkatzea, kanpai bueltakoak eta dantzariak.

Ondoren eta goizalderarte:

Dantzaldia Oria txarangarekin, ondoren kalejira.

Ekainak 24, osteguna:

San Joan eguna:

9:30ean: 'Segurako Alborada' Kriseilu txistu taldearekin.

10:15ean: Alkatea eta zinegotziak elizara joango dira, 'Alkate Soinuaren' doinuaz.

10:30ean: San Joanen prozesioa eta meza nagusia.

Ondoren: Ohiko hamaiketako Udaletxean eta jarraian San Joan egoitzako lagunei

bixitaldia.

11:30etik 14:00etara eta

17:00etatik 20:00etara:

Pista libre, pilotalekuan.

12:30ean: Herri-kirolak plazan: herriko gazteak helduen aurka.

Ondoren: bertsolariak: Egaña eta Lizaso.

18:30ean: Profesional mailako eskuzko pilota jaialdia Baratze pilotalekuan: Errandonea II - Galarza IV, Gorostiza - Pinedoren aurka. Eta Alustiza - Imaz Barberito VI - Errandonearen aurka.

18:30ean: Buruhandi eta erraldoiak.

23:00etatik goizalderarte: La Parranda.



Ekainak 25, ostirala:

San Joan Bigarrena:

10:00etan: Kalejira herriko txistulariekin.

11:30ean: Toka, igel eta bote jokuak Atsedenean. Ondoren hamaiketako jubilatuta eta pentsionistentzako.

12:00etan: Toka txapelketa herrikoia.

18:00etan: 'Ruta Quetzal Argentario' ri ongi-etorria.

18:30ean: Afizionatuen pilota partiduak Baratze pilotalekuan: Castellanos - Hombre, Alfaro - Iparragirren aurka eta Saralegi - Etxeberrria VII Etzaniz - Txikitoren aurka.

20:30ean: Mozorroen kalejira trikitixarekin.

23:00etatik goizalderarte: Basajaun.

Ekainak 26, larunbata:

ume eta koadrilen eguna:

9:30ean: Arrantza txapelketa.

10:00etan: Umeentzako marrazki txapelketa eta jokoa.

10:30ean: Kalejira herriko txistulariekin.

10:30ean: XLII. San Joan txirrindulari proba, elite eta sub-23 mailakoentzat.

13:00etan: Gazte Asanbladak antolatutako jokoa, bazkaria eta futbol partida.

19:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

20:00etan: Poteo elegantea.

23:00etatik goizalderarte: Triki Ta Ke.

ELORRIPE
edarteia

*Festa onak
igaro
ditzazuela!*

Giro
atsegina
eta
pintxo
bereziak

943 80 10 02

SEGURA



jai zoriotsuak

f r u t a s
amatriain

tel 943 80 11 77
Zurbano kalea 22, behea
20214 Segura

Miren Gallastegi eta Saioa Arostegi segurarrak Segurako Euskal Herriko dantza txapelketan

Segurarrez osaturiko bi bikoite izango dira lehian, ekainaren 19an eta 20an Seguran jokatu den Euskal Herriko dantza sueltoko txapelketan. Datu historikoa da honakoa, orain arteko 23 edizioetan, bikote segurar bakar batek bakarrik parte hartu izan duela ikusita. Mutil laguna aurkitzeko arazoak izan badituzte ere, kasualitatez, biek Urretxun aurkitu dute bikotea.

Mirenek 14 urte ditu eta Saioak 17. Lehenengo aldia dute dantza txapelketa batean parte hartzen dutela, eta estreinua, beraien herrian egingo dute; XXIII. Euskal Herriko dantza txapelketan. Larunbatean, ekainaren 19an, kanporaketa jokatu da bikote guztien artean. Hurrengo egunerako, finalerako, 12 bikote sailkatuko dira. Bi saioak ETB-lek emango ditu.



Garrantzitsuena, parte hartzea

Bi neskak ilusionaturik eta pozik daude beraien herriko txapelketan parte hartu behar dutelako. Saioa Arostegi joan zen artean hasi zen dantzari. "Betidanik gustatu izan zait dantza txapelketa ikustea. Txikitan herriko dantza taldean ibili nintzen, baina desagertu egin zen. Iaz, Segurako Musika Eskola dantza ikastaroa ematen hasi zen eta orduan, irakaslea aurkitu nuen; Idiazabalgo Ibon Elortza. Bera ere Segurako txapelketan ateratakoa da. Baina gero mutila falta zitzaidan eta lehengusu bati

esker, Urretxun aurkitu nuen: Iker Rodriguez".

Miren Gallastegi, orain dela 2 urte hasi zen Billabonako Martin Musika Eskolan dantzari ikasten. "Txikitan herriko dantza taldean ibili nintzen. Gustatu egin zitzaidan eta orain dela bi urte hasi nintzen Billabonan. Juan-txo Urbieta da irakaslea, behin Segurako txapelketa irabazitakoa. Nik ere arazo bera izan nuen; mutilik ezin aurkitu. Urtarrilean aurkitu nuen Urretxuko Antton Fernandez eta harrezkero txapelketa prestatzen ari gara".

Biek ere badakite Segurako txapelketa oso maila ona

izaten dela. "Oso maila ona dago. Jendea txiki-txikitatik hasten da dantzari eta oso jende ona dago. Gu gazteak gara, eta ikusiko dugu. Garrantzitsuena parte hartzea da", adierazi digute.

Entseietan gogor ari dira. Normalean astean behin entseiatzen badute ere, txapelketa gerturatu ahala, astean bi entseiu egiten saiatzen dira. Musika geldixeago jarri eta pausoak perfektzionatzen, eskuak goian mantentzen, hanka puntak ondo zaintzen... denetik entseiatzen dute. Aitortu digutenez, ekaineko azterketarik zailena izango da asteburukoa.

Okasioak eskatzen duela eta txapelketa ere izaten delako, jantzi berezia egiten ari zaie Errenteriako Ramon Garcia, betiko jantziak utzita.

Oinarriak

Fandangoa eta arin-arina dantzatuko dituzte. 12 bikote sailkatuko dira finalerako. Sari estimatuena, Nestor Basterretxearen eskultura da, txapeleta eta zapiarekin batera.

SEGURAKO UDALA

Agurra

KAIXO SEGURARROK:

Urteko egunik alaienetara iritsi gara: **SAN JOANAK!!**

Aukera aparta herritar guztiok agurtu eta festara gonbidatzeko.

Festa Batzordean guztiok saiatu gara denon gustoko zerbait prestatzen. Eguneroko ekitaldietan parte hartzera gonbidatzen zaituzte, **UMORETSU, ELKARTASUNEAN, FESTA GIROAN ETA PAKEAN**. Horrela, guztion artean lortuko ditugu **SEGURAK** eta **SEGURARROK** merezi ditugun **SAN JOAN FESTA BIKAINAK**. Gurekin kalean ospatu ezina duzuenok ere gogoan zaituztegu, **SAN JOAN FESTA PRINTZAK** iritsiko baitira zuenganaino.

GORA SAN JOAN ETA AUPA SEGURA!

Zuen Alkate
Karmen Etxeberria



Olaberriako San Joan jaiak

Ekainak 23, asteazkena:

19:00etan: jaien hasiera adieraziko duen suziaren jaurtiketa; eta ondoren, kalejira, buruhandi eta txistulariekin.

19:30ean: Ohizko loreen bedeinkapena.

20:00etan: San Joan zuhaitzaren igoketa.

21:00etan: Parrilada.

22:30ean: San Joan sua. Bertan parte hartuko dute Lazkaoko Oin-Arin dantza taldeak, Zubietako Zantantzarrak eta 'Zurartean' txalapartariak.

23:00etan: Joten jaialdia, 'Alma Navarra' taldearekin, Herriko plazan.

Ekainak 24, osteguna:

San Joan eguna:

9:00etan: Goizeresia Idiazabalgo txistulariekin.

10:30ean: Herriko Korporazioa San Joan Bataiatzailearen elizaraino abiatuko da, Idiazabalgo txistulariek lagunduta.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:15: Udalak eskainitako Hamaiketakoa eta 'Herriko Ostua Zezilio-enearen' inauguraketa. Bertan izango dira, besteak beste, Angel M. Peñagarikano eta Joxe Agirre bertsolariak.

18:30ean: Bertsolarien bigarren saioa: Peñagarika-



Arg.: Jabier Fernandez.

no eta Agirre.

19:00etan: Herri mailako plater hausketa, Olaberriako Tiro Elkartek antolatuta.

19:00etan: Herri-kirolak.

20:30ean: Sagardo dastaketa. Aldi berean, herriko talogile talde bat arituko da taloak egiten (bildutako dirua 1999ko udalekuen alde izango da).

Arratsaldean zehar 'Joxe Agustin eta Andoni Elorza' trikitilariak arituko dira eguna alaitzen.

Ekainak 25, ostirala: umeen eguna:

10:30ean: Txu-txu tren. Ibilbidea: Iurreko parkea - Arrieta jatetxea - Beko etxe. Ordutegia: 10:30etik 13:30era eta 14:30etik 16:30era.

11:00etan: Umeentzako jolasak.

13:30ean: Udalak eskainitako Umeen bazkaria.

15:30ean: Haur parkea: gaztelu puzgarriak, kars pista, ludoteka...

19:30ean: Kalejira buruhandi eta txistulariekin.



San Joan suaren inguruko jaialdia. Oin Arinekoak sorgin dantzan. Arg.: Jabier Fernandez.

IRUROK

OPEL



San Joan zoriontsuak denoi!

N-1 errep. Madrid-Irun
☎ 943 88 51 50
OLABERRIA



✖ Bankete, ezkontza, despedida eta ospakizunetarako eskatu aurrekontuak.

✖ Asteburuetako menuak.

Larunbatetan afal ostean musika izaten da

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!


Merkatal zentrua ☎ 943 16 02 15 **OLABERRIA**



Jefasa S.L.

**LANTEGI
HORNIGAIK**

☎ 943 88 09 60
☎ 943 88 17 43
Faxa: 943 88 69 05
201 Industrialdea, 6. pab.
OLABERRIA
97 posta kutxa
BEASAIN



Arg.: Jabier Fernandez.

20:30ean: 'Baserriko Oirlasko erreka' salgai jarriko dira Zezilio-enean, festan jarraitu nahi dutenek bertan afaldu ahal izateko.

22:00etan: Oskorri taldearen kontzertua herriko plazan.

Ondoren: Kristina eta Amaia trikitilariak erromeria.

Ekainak 26, larunbata:

11:00etan: Probintzi mailako plater hausketan, Olaberriko Tiro Elkarteak antolatuta.

11:00etan: Kollins Clown pailazoekin jaialdia: ipuinak, abestiak, jolasak... Eta ondoren Gorritiren abereak: basurde kumeak, zezen txikiak, ponyak...

18:30ean: Herriko Gazteen

arteko I. Pilota Txapelketa. Eta ondoren, Arkupe Elkarteak antolatutako XIV. Pala txapelketako azken partidua.

23:30ean: Su artifizialak Zaragozana pirokteniaren eskutik.

00:00etan: 'La Parranda' taldearekin jaialdia: mexikarrak, rantxerak...

Ekainak 27, igandea:

10:00etan: Probintzia mailako Bola txapelketa eta herriko Toka txapelketa,

Arkupe Elkarteak antolatuta.

12:00etan: Ardi txakur lehiaketa. Parte hartuko dutenak: Jose Luis Madinabeitia, Jesus M. Plazola, Ramon Larrañaga, Javier eta Xanti Etxezarreta.

18:00etan: Asko karrera.

19:00etan: Trial Indoor - Trialsin ikuskizuna.

Arratsaldean zehar: Aitor Letamendia eta Arkaitz Lasa trikitilariak arituko dira giroa alaitzen.



Arg.: Jabier Fernandez.



**INDUSTRIAS LANDU
KOOP. E.**

PREZISIOKO MEKANIKA OROKORRA

☎ 943 88 21 52 - 943 88 61 94

Faxa: 943 88 99 10

95 posta kutxa BEASAN

6. Industrialdea, lurre auzoa OLABERRIA

JOSE MARTINEZ ARROYO
BULKANIZATUAK

Marratuak, llanta eta neumatiko salmenta

☎ 943 88 05 66 (Tailerra)

☎ 943 88 16 69

Iurre Auzoa
OLABERRIA



ETXE-ZVRI
SAGAROTEGIA


✳ Sagardoa txotxetik urte guztian

✳ Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak

✳ Karta

Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 943 88 20 49
OLABERRIA



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Olaberria: herri mailako I. pelota txapelketa

San Joan jaiei begira, 10-14 urte bitarteko gaztetxoentzat 1go pelota txapelketa antolatu da Olaberrian. Palaz eta eskuz jokatzen dute, 12rako partiduetan. Finalak ekainaren 26an, arratsaldeko 6,30etan, jokatu dira. Aurretik ligaska jokatzen ari dira. Antolaketa ibili den Garikoitz Arrietarekin izan gara.

Olaberria oso herri saka-banatu da eta jendeak Lazkaora edo Beasaina jotzeko joera handia dauka. Gazte-
txoak elkartu eta aliziente bat izan dezaten, herri mailako pelota txapelketa antolatzea erabaki zuen Udalak.

10 eta 14 urte bitarteko



Ekainaren 12an jokatutako partiduetan ateratako argazkia.

gaztetxoentzako txapelketa da. Deialdia egin eta 10 mutilek eman zuten izena. Bikoteak ahalik eta orekatuenak egiten saiatu dira antolatzaileak, adin tarte handi samarra dagoela kontuan izanik.

Osatutako bikoteak hauek dira: Mikel Arantzegi - Andoni Oreja; Imanol Olaran - Xabier Dorronso-

ro; Xeber Maiza - Asier Urkizu; Borja Perieñez - Joseba Iparragirre; Jon Goiburu - Aritz Arantzegi.

Palaz eta eskuz ari dira txapelketa jokatzen. 12 tanturako bi partidu jokatzen dituzte: lehenengoa palan eta bigarrena eskuz. Ligaska ari dira jokatzen jaien aurretik eta denek denen aurka jokatuko dute. Bi par-

tiduetan tantorik gehien egiten dituen bikoteak irabazten du. Era honetan, bi modalitateak bultzatu nahi dira.

Finala ekainaren 26an, arratsaldeko 6,30etan, jokatuko da. Sariak, udalak jarriko ditu. Kopak eta txapelak banatuko ditu.

Garikoitz Arrietak adierazi digunez, pelotarako zaletasuna handitzen ari da piskanaka, telebistari esker. "Olaberria herri txikia da baina pelotalekua badago. Eskolan futboleko eta saskibaloian gehiago ibiltzen dira. Pelotak ere orain telebistari esker bultzada handia izan du eta orain gehixeago ibiltzen dira pelotan. Horrelako txapelketak antolatuta motibatu egiten dira eta joan daiteke zaletasuna gehitzen".



Festa onak pasa!

EDARITEGIA

© 943 88 95 60 OLABERRIA

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO IBILGAILUREN KARROZERIA, TXAPA ETA PINTURA

Iurre lantegialdea, 10

© 943 88 05 65 OLABERRIA

ILARGI



Bosch eta Veeder-root takografoen zerbitzu ofiziala



Jai zoriotsuak denoi!

© 943 88 32 12

Iurre auzoa OLABERRIA

OGEI S. A. L.

Eraikuntza metalikoak

- ✓ Hormigoneren fabrikazioa
- ✓ Hormigonatu hornitegiak
- ✓ Fatxadetako jasogailuak

© 943 88 52 50 - 4
Iurre Auzoa, z/g
OLABERRIA
12 P.K. BEASAIN

INYELEC

MoviLine

MoviStar

Banatzaila ofiziala

© 943 16 07 85

Iurre Auzoa OLABERRIA



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

© 943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa

OLABERRIA

ARRIETA

Jai zoriotsuak opa dizkiezuegu!

JATETXEA

© 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak... era guztietako ospakizunak

IMANOL SERON LEGORRETARRA, KASINO KURSAAL-EKO GERENTEA: "Euskaldunok jokoan zaletasun handia daukagu"

Donostiako Kursaal Kasino berria ekainaren 5ean inauguratu zen ofizialki. Garai batean Petit Kasinoa egon zen eraikuntza berean, Alde Zaharreko Kale Nagusian. Imanol Seron legorretarra da kasino berriaren arduradunetarikoa bat eta berarekin izan gara kasinoak zer eskaintzen duen eta joko tradizioari buruz hitz ginez.

Donostian beti izan da kasinoaren tradizioa. 1887an ireki zen Gran Casino delakoa, egungo udal-etxean. Harrezkero, Petit Casino, Nuevo Gran Casino del Kursaal... izan ziren, 1922an jokoa debekatu zuten arte.

1977an jokoa legeztatu zen berriro. Denbora horretan Londres hotelean egon da kokatuta kasinoak. Ekainaren 5etik hona, berriz, Alde Zaharrean, Kale Nagusian, garai batean Petit Kasinoa kokatuta egon zen lekuan dago. Kasino modernoak egitea lortu dute, Imanol Seronek adierazi digunez. "Orain arte kasinoak handiak izan dira. Esan digutenez lehenengo kasino modernoak egin dugu. Lekura eta ingurura moldatu gara. Normalean 2.000-3.000 lagunentzako kasinoak izaten dira baina hemen hori ez da beharrezkoa. Iaz 60.000 lagun pasatu ziren urtean zehar. Orduan, eguneroko jendea iri zerbiztu ona emateko kasinoak egin dugu, eta beste ikuspegi ba-



Imanol Seron, erdian, Kursaal Kasino gerentea da. Alboan dituenak, Odriozola familiako kideak dira. Kasinoaren aldi berri honetan ere, baldintzarik gabeko baldintza eman dute.

tekin. Praktikoak eta Donostiak edo Gipuzkoak behar duen kasinoak. Dantzaleku handiak, hotel handiak... horrelako kasinoak ez dira oso produktiboak".

Tradizio handia

Donostian ireki zen. 1887. urtean Estatu mailako lehenengo Kasinoa, gaur egun Udaletxea dagoen eraikuntzan. "Europako kasinorik garrantzitsuenak zela esaten zuten. Orain tradizio hori

mantentzen da. Kasinoak Donostian eta Gipuzkoan tradizio oso-oso handia eduki du. Inguruko komertzioak asko defenditu izan dute kasinoak, kanpotik jendea erakartzen baitu hiri-
ra", dio Imanolek. Ekonomia kasinok eragin handia izan dute Donostian. Alderdi Eder guztia eta Kursaleko zubia esaterako, kasinok finantzatu zituzten.

Garai batean klase sozial

goreneko jendearen lekua izaten zen kasinoak, "dirudunak bakarrik etortzen ziren. Orain herritartu egin da piska bat kasinoak. Jende normal-normalak etortzen da, jende ezaguna ere etortzen da... Kasinoak beti diskrezioa mantentzen du eta ez da zabaltzen nor etortzen den Kasinora. Goierriko jende asko etortzen da Kasinora".

Apustuak noiz-nahi

Legorretarrak adierazi digunez, "euskaldunak jokoan biziosoa handiak gara. Euskal Herria osoan apustuzale handiak gara. Pelotan, estropadetan... beti apustuak egiten ari gara eta hori nolabait Kasinora nabaritu egiten da". Hala ere, kasinoak begi txarrez ikusi izan da. "Kasinoak kapitalismo hutsaren irudia zen lehen eta hori baztertu egiten zen. Orain irudia aldatzen ari gara eta edozein joan daiteke. Ikusteak merezi du, glamour handia baitauka kasinoak".

Ludopatiarekin lotu izan da jokoa. "Ludopatia momentuko satisfazioa dela esaten dute eta guk badakigu ludopatak ere badaudela kiniela, bonoloto eta loterierik. Pelotan ere zer esanik ez, izugarritzko diru pila jokatzen da. Jokoa satisfazioa da, ilusioa da. Toki askotatik jasotzen da ilusioa. Guk ilusio hori denen eskura jarri dugu, ez dirua daukanaren esku bakarrik. Kasinora 250 pezetagatik egin dezakezu apustua. Kiniela, bonoloto eta loterietan jendeak diru gehiago gastatzen du".

Joko ugari

Kasinoak hiru ataletan banatzen da. Jokoa dagokionez, bi gune ditu. Batetik, 40 azar edo joko makina daude. Tabernetan egoten diren antzeko makinak dira, baina sari handiagoak banatzen dituzte. Jack pot sistemarekin gainera, dirua pilatzen joaten da eta sari bereziak ematen dira. Bestetik, kasinoak bera dago, bigarren solairuan. 4 erruleta frantses eta 2 erruleta amerikar dituzte. "Frantsesaren inguruko tradizioa daukagu hemen, glamour handiagoko dauka". Erruletez gain, black jack jokoa, deskarterik gabeko pokerra eta poker sintetikoak dituzte.

Joko gunee gain, aktibitate paraleloak ere badituzte: 70 lagunentzako jatetxea, Juan Mari Humada sukaldariaren ardurapean, erakusketa gela eta taberna.

Imanolek lerro hauetatik kasinora joan eta bertako giroa ezagutzera gonbidatu nahi zaituzte, glamour handia baitauka. Hori bai, kirol zapatilak etxean utzita joan.

ZALDIBIA

Gailurrerantz Kirol elkarteak txangoa antolatu du Anboto mendira ekainaren 20rako. Aurtengo udaberriko mendi-irteerei hasiera emateko zaldibitar gehienontzat ezezaguna den Bizkaia aldeko ton-tor mitologiko hau hautatu dute.

Heldu den igandean, goizeko 8etan herriko plazatik atera eta bueltakoan eguna Urkiolan pasatzea dute helburu antolatzaileek, eguraldiak laguntzen badu behinik behin.

Izen emateko epea atzo bukatu zen arren, "despistatu"ren batek joateko asmoa badu, Aitor Olano edo Txur-rekin hitz egin beharko du. Ikasle eta langabetuek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute ibilaldi honetarako txartela, eta langileek berriz, 1.500 pezeta. Norberak eraman beharko du bere janaria.

Bestalde, irailaren 4rako eta 5erako Perdido mendira-ko txangoa antolatzen ari dira eta joan nahi duenari forman jartzeko aholkua helerazi nahi diote.

'Apoaren edertasuna'

Gogoratu, bihar, larunbata, gaueko 10,30etan Koldo Iza-

Mendi-irteera Anbоторa



Julian Ugarterekin solasean

Iragan ostiralean Julian Ugarterekin solasean aritzeko parada izan genuen Kultur etxean Lardizabal herri eskolako haurrekin batera. Aurreko alean aipatu genuen erakusketa ikustera etorri zen margolari zarauztarra, eta haurrek egindako margolanak ikusi ondoren, hauek aurrez prestatuta ekarri zituzten galderei erantzuten saiatu zen.

Beste kontu batzuen artean, bere bizitzako zenbait bitxikiren berri eman zigun, eta gustatuko litzaiguke, besteak beste, margotzen nola hasi zen aipatzea: Julianek kontatu zigunez, 5-6 urte zituela, neguan, etxeko denak baino lehen jaiki eta lur-rundutako leiho guztietan hatzez marrazkiak egiten jarduten zuen. Oso gaztetatik hasi zen, gainera, bere lanak kanpoan eza-gutarazten; 12 urte zituela margolan bat aurkeztu zuen Bartzelonako lehiaketa batera eta 1go saria eskuratu zuen bertan.

Lerro hauetatik Lardizabal herri eskolako neska-mutilak eta irakasleak zoriondu nahi genituzke egin duten lan bikainarengatik.

girre idazleak eta Joseba Tapia trikitilariak prestatu duten ikuskizunaz gozatzeko parada izango dugula, herri antzokian.

Kontzertua

Ordiziako musika eskolan dabiltzan Zaldibiako haurren ikasturteko azken kontzertua izango da ekainaren 21ean,

astelehena, arratsaldeko 7etan antzokian.

Erakusketa

Patxi Epelde eta Mikel Arozenaren ardurapean burutu diren pintura eta taila ikastaroetan eginiko lanak izango dira erakusgai, kultur etxean, ekainaren 23tik 30era, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 6etatik 8etara.

San Joan gaua

Aurtengo alamartxo-gauera-ko ondorengo egitaraua prestatu du udalak:

7etan: kalejira herriko txarangarekin.

7,30etan: ardo barrika zabalduko da.

9etan: herri afaria plazan.

Afalostean: Alamartxoari sua emango zaio eta herriko Iztueta Dantza Taldeak "Sorgin dantza" egingo du herriko txalapartarien laguntzarekin.

Ondoren: Patxi Saiz abeslaria eta Guillermo Segurola txiste kontalariaren saioak izango dira herriko plazan.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea


ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

URBITARTE

sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

BEASAIN

Ekainaren 23 iristearekin batera festa ugari izaten da herrietan. San Joan suarekin hasi eta San Pedro egunarekin izango da jarraipena.

Ekainaren 23an, San Joan sua izango da protagonista. Arratsaldetik hasiko da giroa alaitzen eta 19:00etan, erraldoiak eta buruhandiak, txistularien laguntzaz, ibiliko dira batera eta bestera. 22:00etan Barrendain plazan txistulariak izango dira eta orduerdi beranduago, Ostadar dantza taldearen eskutik, San Joanen zortzikoa dantza ikusi ahal izango da. 22:45ean piztuko da San Joan sua. Gaua amaitzeko, Basajaun taldearen eskutik dantzaldia izango da.

San Pedro egunean, ekainaren 29, Arriaranen festa eguna izango da, nahiz eta hurrengo astebururako utzi dituzten ekitaldirik garrantzitsuenak. Ekainaren 29an, hala ere, meza nagusia, herri bazkaria, Egaña eta Lizaso bertsolariak eta karta-joko txapelketa izango dira.

Ezkiaga auzoan, egun berean arratsaldean denborapasak, 19:00etan buruhandiak eta txistulariak, 20:00etan trikitilariak, sardina eta txistorra janak izango dira. Gauean, 22:30ean, sua piztuko dute.

UEUrako subentzioak

Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako udako euskarazko ikastaroen berri jakin nahi duen edonork, Udale-

txeko Harrera zerbitzuan aurki dezake informazioa edota zehatzagoa nahi izanez gero Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943 805251 telefonora deituz. Aldi berean, Udalak, ikastaro horietarako diru-laguntzak ematen ditu. Eskae-rak uztailaren 12ra bitartean egin behar dira Udaletxean.

1998/99ko euskara ikasleei

diru-laguntzak

1998ko irailetik 1999ko abuztura bitartean edozein mailatako Euskalduntze-Alfabetatzeko Euskara-ikaske-tak Euskaltegiren batean egin dituzten (Udal Euskalte-gietan salbu) edo egiten ari diren 16 urtez goitiko ikasle beasaindar guztiek, diru-laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte Udaletxe-ko Harrera bulegoan, azaroa-ren 30era bitartean.

II. Igartza beka-saria

35 urtetik beherakoek eta bi liburu baino gehiago argita-ratu ez dituztenek, gutxienez ere 75 bat orrialde dituen ele-berri edo ipuin-bildumaren bat idazteko beren literatur proiektuak aurkez ditzakete ekainaren 30era bitartean. Oinarriak eta baldintzak Udaleko Euskara-zerbitzuan daude. Bekaren ebazpena irailaren 10erako emango da eta idazteko urtebete izango du irabazleak.

San Joan eta San Pedro jaia



Bada garaia! plataformaren aurkezpena

Ekainaren 5ean aurkeztu zen Bada garaia! presoen eskubide-en aldeko plataformari 80 herritar, elkarte eta erakundek azal-du diote atxekimendua. Zigorren 3/4 beteta daukaten Beasaingo Jokin Aldanondo eta Txemi Arteaga beasaindarrak aske gelditzeko eta Espainia eta Frantziako estatuetako kartze-letan dauden Josu Lopez, Juan Mari Intxausti, Jabi Irastorza eta Mikel Azurmendi lehenbailehen Euskal Herrira ekartzeko eskatzen du plataformak. Sendaezinezko gaixotasunak jota-koak ere akatzeko eskatzen du. Irekia da plataforma eta Beasaingo sektore guztiei bertan parte hartzeko eta bakoitzak bere ekarpenak mahairatzeko gonbitea egin zaie.



Errail antzerki taldearen emanaldia

Ikasturte bukaerarekin batera, Errail antzerki taldearen obra berria ikusteko aukera izango da ekainaren 25ean, Usurbe Antzokian, 20:30ean. Arnold Weskerren 'Sukaldea' lana taula-ratuko dute Ana Barrero, Imanol Aristi, Aitziber Garmendia, Marta Lizaso, Ainara Mujika, Alain Gomez, Angeles Paredes, Sara Sanz, Mari Luz Torreño, Jon Unanua, Igor Urzelai eta Miren Zufiaurre aktoreek. Rosa Rojo da taldearen zuzendaria.

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

943 88 04 53

BEASAIN

ILEAPAINDEGI MISTOA

✓ **Solarium** 4.500 pta.
10 saioko bonoa

✓ **Depilazioa**

✓ **Kolore eta permanenteak**,
astelehen, astearte eta
asteazkenetan %5eko
deskontuaz

Rekartealde, 30 943 88 34 86 BEASAIN

LAZKAO

Haurtzaindegia San Benito Ikastolan



Belen Maiza San Benitoko zuzendaria eta Noemi Fernandez, Ikastolako ikasle ohia, psikologia karrera bukatu berria.

0-2 urte bitarteko eskaintza ere izango du San Benitok irailetik aurrera. Haurtzaindegia zerbitzua behar duten guraso gazteak Beasain edo Ordiziara joaten dira. Herrian etxebizitza berriak, jende gaztea dator eta guraso gazteek haurtzaindegia erabilerara egiten dute, premia horri erantzuteko asmoarekin datoz ikastolakoak.

"Iaz espazio falta geneukan eta atzeratu egin zen proiektua. Aurten San Prudentzio eskolako beste zati bat hartzeko aukera izango dugu eta horrek beste antolaketa bat egiteko aukera ematen digu. Orain arte Haur Hezkuntzako ikasleek erabiltzen zuten Mikelarreko

etxeak baldintza politak betetzen dituen horrelako zerbitzua aurrera eramateko. Buelata genbiltzala, kanpotik proposamen bat etorri zitzaigun eta abian jarri dugu proiektua", dio Belenek. Haurtzaindegia jartzeko ideiarekin zebilen Noemi Fernandez eta Goiekiko inkubategian landu du proiektua. *"Merkatuaren analisia egin dugu eta beharra bada goela ikusten da. Bestetik ikusten dugu, inguruan dauden haurtzaindegiek zenbait behar ez dituztela behar bezala betetzen. Nahiko tradizionalak dira. Ikuspegi pedagogikoa ez da kontutan hartzen eta alternatiba eman nahi diogu".*

Felix Urkola alkate

Uztailaren 3ko osoko bilkura egin arte ofizialki izango ez bada ere, Felix Urkola EAJ-EAko zerrendaburua izango da hurrengo 4 urteetan alkate. Zinegotziak hauek izango dira: EAJ-EAko Igor Sarriegi, Inaxio Estensoro, Gorka Lami eta Arantxa Zumelaga; EHko Irantzu Amundarain, Julio Ibañez, Jon Agirre eta Urko Irastorza; PSE-EEko Jose Antonio Dopazo eta PPko Jose Luis Otamendi. Emaizak 10. orrian dituzue.

Goierri ezagutuz

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek gure ingurua ezagutzeko txangoa antolatu du ekainaren 26rako. Goizeko 9etan Lazkaoko plazatik abiatu, eta Sasieta Mankomunitateak Beasainen duen zabortege kontrolatua eta Legazpiko ontzien sailkapen planta bixitaiko dituzte. Goizpasari amaiera emateko Zumalakarregi museoa ikusiko dute. Hau dena 200 pezeta truke egiteko 943 88 65 00 telefonoan eman behar da izena ekainaren 24a baino lehen.

Herriarteko pelota txapelketa

Zaldibia eta Usurbil alde batera uztea lortu bazuten ere, final laurdenetan Azkoitiaren aurka 2 aldiz 3-0 galdu dute lazkaotarrek. Ekainaren 11n etxean jokatu zuten itzulerakoa eta afizionatueta partidua irabazteko zorian egon baziren ere (18-7 egon ziren), azkenean, 18-22 galdu zuten.

Haurraren garapen faseak kontuan izango dituzte. Haur bakoitzak zein behar dituzten eta haurraren abilitadeak piska bat potentziatu, estimulazioa landu, egon daitezkeen hutsuneak detektatu... *"Hezitze gunea da, ez zaintza leku hutsa bakarrik".*

2 urtetik 8 urte bitarteko-entzat zerbitzua ere izango

da: goizeko 7etatik 9etara; 12etatik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara. *"Haurtzaindegia normalek baino eskaintza zabalagoa eskainiko dugu",* diote.

Lazkaotarrentzat bakarrik ez da izango haurtzaindegia. Informazio gehiago nahi duenak, San Benito Ikastolan duzue: 943 88 18 16.

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83


LAZKAO

ZEZILIONEAT



OSTATUA

OLABERRIAKO KASKOAN




TABERNA



JANGELA



JANGELA



SAGARDOTEGIA



ZEZILIONEAT



OSTATUA

BILERA ARETOA
9 LOGELA BIKOITZ:
bainu gela,
telefonoa, telebista,
antena parabolikoa

ORDIZIA

EAJ-EA nagusi udal hauteskundeetan

EAJ/EA koalizioak 1.850 botorekin 5 zinegotzi eskuratu zituen igandeko udal hauteskundeetan (Alejandra Iturrioz, Joxe Arizmendi, Jesus Maria Aldaz, Guzman Vazquez eta Mikel Iturrioz). Orain lau urte bi alderdien artean 7 lortu zituzten. Jarraian gorakada nabarmena ezagutu duen alderdia geratu zen, 1.617 boto eta 4 zinegotzi lortuaz: EH (Agustin Linazasoro, Julen Agirre, Izaskun Urrestarazu eta Bittor Milo), aurreko legealdian baino bat gehiago. PSE/EEK ere zinegotzi bat irabazi zuen, 729 botorekin bi ordezkari eskuratuaz (Iñaki Dubreuil eta Aitor Perlines). PPK 577 botorekin lehen zeukan ordezkari kopurua mantentzea lortu zuen, hau da, bakarra (Maria Pilar Maso) eta azkenik EBk ere lehen zeukanarekin jarraituko du 341 boto lortuta (Pedro Lozano).

Iparra-Hegoa laguntza banaketa

Iparra-Hegoa lankidetza programak garatzeko dirulaguntzak nola banatu erabaki berri du Udalak. 1999. urtean Gobernu Kanpoko zortzi Erakundek egin dituzte euren proiektuen aurkezpenak eta Udalak 9.512.000 pta. erabali-ko ditu hauek laguntzeko. Honela banatzea erabaki da: "Medicus Mundi"-ri 1.900.642 pta. Ekuadorren ur kutsatuak aztertzeko, "Mugen Gainetik"-i 1.114.796 pta. El Salvadorren azukre organikoa ekoizteko nabea eraikitze-ko, "Hirugarren Mundua eta Pakea"-ri 1.320.166 pta. Mexikon osasun suspertzaile eta emaginei laguntzeko ospitalea eraikitze-ko, "Manos Unidas"-i 1.114.796 pta. Mexikon jatorrizko 10 komunitateen eten-



Ortzadar saria

XV. argazki lehiaketa antolatu du Ortzadar elkarteak, gai librean eta gehienez 5 argazki aurkeztuaz egile bakoitzak (zuri beltzean edo koloretan). Hauek Ordiziako 79 postakutxatilara bidali beharko dira ekainaren 28a baino lehen. Irabazleak 35.000 pta. eta trofeoa eskuratuko ditu.

gabeko garapenerako, "Ropka"-ri 350.000 pta. Tibeteko aurrekolan medikuntza aurreratzeko, "Cepai"-ri 858.000 pta. Venezuelako Apricoa elkarteak irratia sendotu dezan, "Comite Oscar Romero"-ri 1.603.260 pta. El Salvadorren Mitch hurakak kaltetutako familientzako etxebizitzak eraikitze-ko eta "Elan-Euskadi"-ri 1.250.340 pta. Nikaraguan ingurugiroa, osasuna eta komunitatea sustatzeko.

Jakintza ikastolaren jaialdia

Azken urteotako ohiturei jarraituz Jakintza Ikastolak bere festa eguna ospatuko du ekainaren 19an. Berau pilotaleku estalian izango da eta ikasleek prestatutako antze-lan ugari izango dira ikusgai. Afari-merienda modukoa ere antolatuko dute Ikastolako-ek.

San Joan sua

Su Gorri taldea da San Joan sua antolatzeaz arduratzen dena herrian eta aurtengo zitari hutsik ez diote egingo. Ekainaren 23ko gauean suaren inguruan egiten den dantza saioa prestatzen dabil-tza hilabete guztian zehar, sorgi-

nak, akerrak, inkisidoreak... denak protagonistak diren saioa. Lerro hauek idazte-koan udaletxearekin tirabi-ran zebiltzan oraindik Su Gorri taldeko arduradunak, ekintza antolatzeak gastuak sortzen baititu eta ez baita oraindik ziurra Udalak ordainduko duen ala ez. Sua non egingo den ere zehaztu gabe dago oraindik.

Kirolak

Futboleko lagunarteko txapelketa amaitzeaz dagoen bitartean (finalerdiak jokatu-ko dira datorren larunbatean), saskibaloiko txapelketa hasi berri da. Bata anexoan jokatzen den bitartean bigarrena estaligabeko pilotalekuan, egu-nero arratsaldeetan.

Txirrinduan ibiltzea gus-toko dutenak ere aukera ona izango dute, uztailaren 3ko Agostinho Memorialaz gain Jesus Blancoren omenezko zikloturisten lasterketa izan-go baita ekainaren 20an. Ibil-bideak 80 Km. izango ditu. Ordizian hasi, Larraitz birri-tan igo eta helmuga berriro Ordizian. Izenematea Itxaro-pena Elkartean egin beharko da lasterketa hasi aurretik. Ir-teera goizeko 8,30ean izango da.

Otegi-enea auzoa festetan

● Ekainak 18:

18:00etan: Txupinazoa eta toka txalpelketa jubilatuen-tzat. **19:00etan:** Erraldoiak eta buruhandiak. **21:00etan:** Herri afaria. **23:00etan:** Dantzaldia Zapotxin Berri taldearekin.

● Ekainak 19:

10:00etan: Krosa 14 urte-tik beherako auzotarren-tzat. **11:30etan:** Pintura lehiaketa, 14 urte bitarte-koentzat. **12:00etan:** Sas-kibaloiko txapelketaren fina-la. **18:00etan:** Kung-fu erakustaldia. **19:00etan:** Arku tiraketaren erakustal-dia. **23:00etan:** Dantzaldia Sirimiri taldearekin. **00:30etan:** Mozorro lehiaketa. **04:00etan:** Txokolate jana.

● Ekainak 20:

10:00etan: Eskulan eta ar-te erakusketa. **10:30etan:** Laguntasuna Errondaila. **11:00etan:** Euskal dan-tzak. **12:00etan:** Ordiziako jubilatuen abesbatza. **16:00etan:** Herri toka. **18:00etan:** Aizkolariak. **20:00etan:** Dantzaldia Zapotxin Berri taldearekin.

● Ekainak 23:

19:00etan: Sardina jana. **19:00etan:** Tikitilariak. **21:30etan:** San Joan sua. **23:00etan:** Sardinaren ehorzketa.

Gasteizko Ulibarri Gan-boa pantanoan jokatutako Espainiko aleta igeriketa txapelketan OKE urpekoak el-karteko Jon Iturrioz izan zen nagusi gizonezkoetan eta tal-de bereko Ane Lopez de Ber-gara arrasatearra emakumez-koetan.

Aitor Calvillo

ATAUN

Uda ate joka

Urrutiantzean bazirudien ere, jada udan sartzeaz gauden honetan planak egiten haste-ko ordua da. Hona hemen ideia batzuk.

San Pedro abesbatza

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolaturik, Kanta Kantari 99 programaren barne, Zumaiako San Pedro abesbatzaren kantaldia entzun eta ikusteko aukera izango dugu. Ekimen hau ekainaren 26an izango da San Martingo parrokian, iluntzeko mezaren ondoren. Gainera, zumaiarren kantaldiaren aurretik, herriko abesbatzak, Eatek, hiruzpalau abesti eskainiko ditu.

Uda 99 ikastaroak

Ataungo Udalak aurten ere Uda Ikastaroak antolatu ditu. Beraz, eta 16 urte bitartekoa bazara, hona hemen dituzun aukerak:

- Eskalada: Ikastaroa Jentil Baratzan emango da Uztailaren 5etik 10era. 15 orduko iraupena izango du.
- Piraguismoa: Agauntza errekan uztailaren 12tik 17ra. 10 orduko iraupena izango du.

Santa Ixabelak Aian

Aurten ere programa bete-betea osatu du Aiako jai batzordeak, Udalaren babesarekin, Santaixaletarako. Hona hemen egunean eguneko.

Uztailak 2 ostirala:

11:00tan: Meza nagusia.

12:30ean: Bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.

Ondoren: Auzo bazkaria (bertsolari eta trikitilariekin).

18:00etan: Toka Txapelketa.

Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.

Gauerdian: Sakatrik taldearekin dantzaldia goizalde-rarte.

Uztailak 3 larunbata: Haurren Eguna.

17:00etan: Ume jolasak.

- Arku tiraketa: Auzoeta kiroldegian izango da eta 10 orduko iraupena izango du uztailaren 19tik 23rarte iraungo duen ikastaro honek.

Ikastaro hauetakoren ba-



Ondoren: Ataungo Dantzari Txikien saioa.

19:30ean: Sardina eta sagardo dastaketa.

23:00etan: Joxemi eta Aloñaren kantaldia. Diska berriaren aurkezpena.

00:30ean: Gaupasa Etzakit taldearekin.

Uztailak 4 igandea:

10:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren: Herriko bertsolari gazteen saioa.

12:00etan: Luntxa plazan.

12:30ean: Erlojuaren aurka-ko txirrindulari proba. Ibil-bidea: Kaxeta-Aia.

17:30ean: XIV. Dantzari Txikien Txapelketa (mugatu). Euskal Herriko txapelketan finalerako sailkatu ziren 10 bikote hobere-nek hartuko dute parte bertan.

Ondoren: Aizkolariak: Saralegi anai-arreben erakustaldi ikusgarria.

Gauean: Agautz taldearekin dantzaldia jaiei amaiera emanaz.

tean parte hartzeko asmotan bazabiltza, Auzoeta Udal Kiroldegira zuzendu zaitez ekainaren 24a baino lehen. Ikastaro bakoitzerako sarrera 2.500 pezeta kostatuko da.

Era berean, Udalak jakinarazten du ekimen hauek aseguru batez bebestuta daudela.

Agurtzane Bikuña

JOAKIN ZUBELDIA
PINTURA-LANAK



☎ **943 180246** **ATAUN**



✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak
GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 **BEASAIN**

PELUQUERIA
Pascual

ILEAPAINDEGI MIXTOA

Nafarroa Etorbidea, 17
☎ **943 882 248** **BEASAIN**

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

gizarte-ekintza
obra social

ZEGAMA

EA-EAJ koalizioa Juan Inazio Galdos alkate

EA-EAJ koalizioak jaso ditu boto gehien ekainaren 13ko hauteskundeetan. Hona hemen emaitzak:

EA-EAJ koalizioa:

Udala: 528 boto; Gipuzkoa-ko Batzar Nagusiak: 502 boto; Europako Legebiltzarra: 505 boto.

EH:

Udala: 367 boto; Batzar Nagusiak: 365 boto; Europako Legebiltzarra: 356 boto.

PP:

Udala: 9 boto; Batzar Nagusiak: 23; Europako Legebiltzarra: 23 boto.

Datozen lau urteetan EA-EAJ koalizioa zerrendaburua, Juan Inazio Galdos, izango da alkate. Aldi berean, EA-EAJ koalizioa partaideek, Zegamako herriari beraieran jarritako konfiantza eskertu nahi diote le-
rro hauen bidez eta 1998ko urriko hauteskundeetatik, Autonomikoetatik, izan duten igoerak, ilusioz betetzeaz gain, herriaren zerbitzura lan egiteko gogo aparta ematen diela azpimarratzen dute.

Uda kanpaina

Udalak udaleku irekiak antolatu ditu, 4-12 urte bitarteko haurrentzat, ekainaren 28tik



'La Ruta Quetzal Argentaria' Zegamatik igaroko da

Urteroko legez Miguel de la Quadra Salcedo eta bere lantaldeak 'La Ruta Quetzal Argentaria' deiturikoa antolatu dute eta aurtengoan iparraldeko Santiago Bidea egitera zuzendu dute, gero Panamara joango direlarik. 'Ruta' honetako antolakuntza, kazetari eta irakasleekin batera 350 gaztekin hartuko dute. Ekainaren 25ean, taldearen ibilbidea, Zegamatik igaroko da.

Ostiral goiz horretan Arantzazutik oinez Urbia igoko dute, jarraian San Adriana iristea helburu izango dutelarik. Bertan erromatar galtzada eta Santiago Bidearen eta San Adriango kobaren historian jakitun diren Mikaela Portillo historialariak eta Fermin Leizaolak zenbait argibide emango dituzte. Beunden bazkaldu eta Otzaurtetik autobusez herriratuko dira. Herrian arratsalde 4,30etan egingo zaie ongi-etorria, agurra dantatuaz eta trikitixa doinuz. Herrialde desberdinetatik iritsitako gazteek Zegama ezagutzeko aukera izango dute, ondoren Segura aldera abiatuko dira.

uztailaren 23ra, 10:00etatik 13:00etara. Honetarako, Kementen enpresak zerbitzuak kontratatu ditu Udalak. Izena hilaen 22 baino lehen eman behar da izena udaletxean.

San Joan arbola

Datorren ekainaren 23an, ohiturari jarraituz, San Joan Arbola igotzea izango da herriko txistularien doinuez lagundurik. Bertan parte hartu

nahi duenak iluntzean udal portikupera ager bedi.

Hurrengo egunean, 24an, ohiko afaria egingo da udaletxeko portikupetan. Ekainaren 22 aurretik eman behar da izena, Udaletxean.

Bai Euskarari

Bai Euskararen aldeko ekin-tza egingo dute herriko gazteek ekainaren 27an, arratsaldeko 5etan.

Kontzertu bikaina

Ekainaren 12an Tobera Musika eskolako ikasleek kontzertu bikaina eskaini ziguten herritarroei. Besteak beste, pianoa, esku soina, trikitixa eta panderoa, saxofoia, klarinetea, gitarra eta zenbait dantza desberdin ikusteko aukera izan genuen.

'Artzantza eta etorkizuna'

Datorren ekainaren 30ean iluntzeko 8,30etan artzantzari buruzko hitzaldia izango da Kultur etxean. Gogoeta Estrategikoak proposaturiko ekimena izanik, artzantzaren munduak duen etorkizunari buruz hitz egingo da.

Edurne Albizu



Inausti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15



AUSO GEGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✗ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✗ Berogailuak
- ✗ Iturgintza
- ✗ Zeramika erakusketa
- ✗ Bainuko altzariak
- ✗ Erreforma osoak



LEGORRETA

Udaleku irekiak

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurrekin hiru asteko udaleku irekia antolatu da ekainaren 28tik uztailaren 16ra, biak barne. Esperientzi honekin ikasturtearen jarraipena egin nahi da, bai euskararen erabilera bultzatzeko nola ikasleen arteko harreman pertsonalen arloa lantzeko. Lan hau astelehentik ostiralera egingo da goizeko 10etatik ordu batera, jokoak, antzerkia, irteerak eta abar burutuko direlarik. Haurren izen ematea ekainaren 23ra arte egin daiteke Udaletxean.

● **Begiraleek bete beharreko baldintzak:** gutxienez 18 urte beteak izatea, Legorretan errolatua egon, euskaraz ezin hobeto mintzatu eta ikasketa hauetako batean gutxienez 3 urte ikasiak izan: magisteritza, pedagogia, psikologia, EKi edo Begirale Titulua. Begirale

Eskolan 'Egun irekia'

Ugaro herri ikastetxeak 'Egun irekia' ospatuko du, gaur, ekainak 18, arratsaldeko 7etatik 9ak arte. Denona den eskola herriari erakutsi nahi diote, eskola gerturatzeko. *"Jakin badakigu, sarritan seme-alabarik ez dutenentzat 'urrun' geratzen zaiela eta guztiz positibotzat jotzen dugu herri bizian ere interesgunea izatea, eta ez bakarrik Hezkuntza Elkarteak osatzen dugunontzat"*, diote Ugarokoek. Dena den, ikastetxea orduero eta egunero dagoela irekita gogorarazi nahi diete herriarrei. *"Baina hala eta guztiz ere, egun hau ospatzea funtsezkoa iruditu zaigu hasieran izan daitezkeen beldur edo mugak gainditu ahal izateko"*.

Bisitaldia atseginagoa izan dadin Lehen Hezkuntzako 6. mailakoek luntxa prestatuko dute.

izan nahi duenak Udaletxean eman beharko du izena ekainaren 18a baino lehen.

Korputz eguna

Aurtengoan ere herriko frontoia txikia geratu zen usadiozko meriendak egitera joan ziren herritarrentzat. Dohaneko ardoak, Errondaiak eta txarangak lagundurik giro paregabean ospatu genuen Korputz Eguna.

Festa azkenean goizalderarte luzatu zen.

● Kroseko emaitzak:

Frogako gazteena: Mikel Felipe (2 urte).

Frogako zaharrena: Pepe Castilla.

Bilkoineko 1. go bazkidea frogan: Migel Olano.

8 urtetik beherako neskek: Idoia Gaztañaga.

8 urtetik beherako mutilak:

Eki Zugasti.

9-11 urteko nesken artean: Naiara Olano.

9-11 urteko mutilak: Ibai Uribe.

12-14 urteko neskek: Sonia Mato.

12-14 urteko mutilak: Ander Matos.

15 urtetik gorako mutilak: Iker Manso.

● Ardo dastaketa:

Jon Ander Martinezek irabazi zuen ardo dastaketa txapelketa. Gustora asko geratu zen bere txapela eta erreserbako ardo kajariakin.

Legorreta

Txirrindulari frogak

Ekainaren 12an XLV. Legorreta txirrindulari frogak Oriako taldeko Joseba Agirrezabalek irabazi zuen.

Josune Amondarain

ITSASONDO

Ekainaren 13ko hauteskundeetan EHk bildu ditu botoirik gehien. Udala EHko 7 zinegotziek osatuko dute: Jose Mari Otegi, Jose Kandido Sagarzazu, Jose Luis Aranburu, Jose Manuel Mendizabal, Amagoia Etxeberria, Jose Angel Mintegi eta Iker Mendizabal.

● Udal hauteskundeetako emaitzak:

EH: 281 boto (7 zinegotzi); **PP:** 16; **txuriak:** 36; **balioabeak:** 33 boto.

● Batzar Nagusietako emaitzak:

EAJ: 119; **EH:** 217; **IU-**

EB: 3; **PP:** 11; **Berdeak:** 1; **PSE-EE:** 9; **Txuriak:** 4; **Baliogabeak:** 6.

● Europako Legebiltzar- rako emaitzak:

EAJ: 120; **IU-EB:** 2; **PSE-EE:** 4; **BNG:** 5; **PP:** 9; **EH:** 216; **txuriak:** 5; **baliogabeak:** 6.

Alkatea absolbiturik

Jose Mari Otegi alkatea Itsasondo udal intsumitua izateagatik epaitu zuten maiatzaren 25ean. Epaiaren arabera, absolbitu egin dute.

Nagore Etxeberria


EH irabazle

Iraurgi abesbatzaren kontzertua

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatu duen 'Ekaina Kanta-Kantari' programaren barruan, igandean, ekainaren 20an, Azkoitiko

Iraurgi abesbatzaren kontzertua izango da, eguerdiko 12etan, Andra Mari parrokan.

Kontzertu honen inguruan egitarau haxe prestatu du Udalak: goizeko 11etan meza nagusia izango da herriko eta Iraurgi abesbatzarekin batera. Ondoren Iraurgi abesbatzaren kontzertua izango da. 10 abesti kantatuko ditu Iraurgi abesbatzak. Azkenik, Nautico jotetxean bazkaria izango da. Aurretik eman behar da izena.



SEGURA

EH udalerako bozkatuena

Ekainaren 13an EH izan zen herritarren boto gehiena jaso zituena, lehen aldiz, udal hauteskunderi dagokienez.

	UDALA	BATZAR NAGUSIAK	EUROPA
ZENTSOA	1.021	1.021	1.021
BOTO EMAILEAK	892	891	888
ABSTENTZIOA	129	130	133
ZURIAK	20	8	10
BALIOGABEAK	5	3	5
EH	366	336	332
EA	326	518	513
EAJ	172		
PP	3	14	13
PSOE		9	11
EB		1	1
PLAZANDREOK		1	
BERDEAK		1	
TIERRA COMUNERA			1
PARTIDO HUMANISTA			1

Ondorioz, EHk 4 ordezkari izango ditu datozen 4 urteetarako (Luli Telleria, Rafael Gerriko, Aitzol Telleria eta Jaione Telleria), EAK 3 (Karmenxu Etxeberria, Mikel Areizaga eta Jon Agirre) eta EAJk 2 (Peio Agirrezabal eta Manu Errezola). Oraingo legealdia uztailaren 3an amaituko da eta alkatearen auke-

raketa ordurako espero da.

Presoen aldeko ekintzak

Presoen aldeko taldeak San Joanetarako hainbat ekintza antolatu ditu. **Ekainaren 19an**, 20:30ean, giza katea herrian zehar, preso eta errefuxiatuei elkartasuna adierazteko. **Ekainaren 23an**,

San Joanak

- **Gipuzkoako itzuliko kronoeskalada.** Gaur, ekainak 18, iluntzeko 7,30etan hasita Madalenatik Egileorra jubenil mailako kronoeskalada.
- **Txosnak.** Frontoi zaharrean Gazte Asanblada eta Jarraik jarriko dituzte. Futbol taldekoek Elkartetxean jarriko dute eta Elorri elkartekoek Elorripe zaharrean.
- **Herri afaria.** Gaur, ekainak 18, txosna gunean.
- **Herritarren rock kontzertua.** Ibai Gonzalez (bateria) eta Ibai Telleria (ahotsa) 'Naftena' rock taldearen debuta Seguran, ekainaren 19an, 10:30etatik aurrera txosna gunean. Haeuz gain, 'Geroh', 'Bortz' eta 'Spirium Nacrem' ere arituko dira.
- **Txistularien alardea.** Ekainaren 20an, 12:30ean, parkean daude geldituak. Herrian zehar kalejira eginda, plazan amaituko da 4-5 pieza joaz.
- **Umeen tanborrada.** Gaur, ekainak 18, 16:30ean, entsaioa izango da Baratze Pelotalekuan. Ekainaren 21ean, berriz, 19:00etan txaranga eta guzti. Ekainaren 23an 109 ume dira ateratzekoak.
- **Txirrindulari proba.** Elite eta 23 urtez azpikoentzat XLII San Joan proba. Goizeko 10,30etan plazatik irtenda, 13:25 alderako helmugaratuko dira. 118 Km izango dituzte eta Ormaiztegi aldetik Lierni igota iritsiko dira helmugara.



Euskadiko txapelkun

Ekainaren 12an Seguran jokatu zen Euskadiko bola txapelketan, 6 lehenengotan egin zuten 4 partehartzai-

le herritarrek. Antonio Agirrek atera zuen txapela (12 botalditan 70 birla). 2. Imanol Agirrek egin zuen (68 birla). 5. Martxelino Agirrek (63 birla) eta 6. Jokin Izagirrek (62 birla).

Ekainaren 13an Ereñozun jokatu zen San Antoniotako bola saioan, berriz, Joakin Izagirre izan zen irabazlea (6 botalditan 36 birla).

'San Joan sua bai, presoak EHra ere bai' lemapean kontzentrazioa suaren inguruan. **Ekainaren 24an**, kontzentrazioa eguerdiko 12,30etan plazan. **Ekainarean 25ean**, (konpromiso eguna) moztroen kalejiran preso eta errefuxiatuak gogoratuko dira. **Ekainaren 26an**, manifestazioa goizeko lehen txosnetatik irtenda.

Bide batez, balkoietan 'Euskal presoak EHra' banderolak jartzeko deia egin nahi dute (Elorripen salgai).

Labur-labur

- **Oporrak.** Laiotz Herri Eskolako ikasleek, gaur ekainak 18, izango dute azkeneko klase eguna.
- Ekainaren 7an, 2 taldeen artean egindako zozketan, M^a Jesus Larrea, Ibai Gonzalez eta Joxan Garrok osatutako taldeari tokatu zitzaion **Oxiña igerilekuko taberna** eta sarreren ardura. Asmoa, ekainaren 27rako irekitzekoa da. Abonoak udaletxean edo igerilekuan bertan egin daitezke. Sorosle herritarrik ez da apuntatu. Iaz aritutako Igor Bueno bertan izango da.
- Irungo Kurpil pelota torneoan **Ibon Etxeberriak** finalaurreko partidua jokatuko

du Saralegirekin batera ekainaren 22an, 18:00etan Urantzu Pelotalekuan. Torneo berean, Castellanosen eta **Jon Ander Hombrek** aste honetan zuten final laurdenetako partidua.

● **Iker Agirrezabalek** ekainaren 22 eta 23an Salamancan jokatuko diren estatu mailako atletismo txapelketan parte hartuko du 300 metrotan.

● **'Ruta Quetzal'.** Santiago bideko hainbat paraje eta herri bixitatzen ari diren 43 herrialde ezberdinetako 400en bat lagun iritsiko dira Segurara Zegama aldetik ekainaren 25ean, 18:00 inguruan. Udalak harrera egingo die, Udaletxean zigilu jakobeara jaso eta zanpanzar eta txistulariez lagundutako kalejira plazan amaituko dute. Bertan herri kirolak eta dantzariak izango dira.

● **Etxegarateko bikoizketaren maketa.** Ekainaren 26 arte ikusgai Kultur Etxean.

● **Udako kirol eta jolas jarduerak.** 14 urtetik beherakoentzat, uztailaren 5etik 23ra (10:00-13:30). Informazio gehiago Udaletxean

Joseba Telleria

IDIAZABAL

Antton Irizar hurrengo legealdian ere alkate

Hauek dira Udal hauteskundeetako emaitzak:			
	99 (udal)	98 (Legeb.)	95 (udal)
EA	725	433	656
EH	337	345	269
EAJ	219	329	278
PP	40	92	-
PSE	-	31	-
IU-EB	-	15	-
Besteak	-	8	-

Batzar Nagusietako eta Europako parlamentuko emaitzak:				
	Batzar Nagusiak		Europa	
	99	95	99	95
EA-EAJ	845	852	826	557
EH	370	260	382	227
PP	63	52	71	49
PSE-EE	31	23	34	24
IU-EB	9	20	11	19
Besteak	7	5	8	9

Eusko Alkartasunak irabazi ditu Udal hauteskundeak Idiazabalen. EAK gehien-goia lortu du, honenbestez Antton Irizar izango da hurrengo lau urteetako alkatea. EAK 6 zinegotzi lortu ditu, aurreko Udal hauteskundeetan baino 1 gutxiago. Euskal Herritarrok taldeak lortu du EAK galdutako zinegotzi hori, EHk gutzira 3 ordezkari izango ditu Udalean. EAJk lehengoari eutsiko dio eta 2 zinegotzi lortu ditu.

Datu horien arabera Udala ondoko laguneko osatuko dute: Antton Irizar (alkatea), Xabier Imaz, Julian Urteaga, Antton Garmen-

dia, Aritz Imaz, Jesus Mari Insausti, Tomas Aldasoro, Loinaz Urrestarazu, Gorka Egialde, Asier Oiarbide eta Jenaro Zabala.

Herri eskolako festa

Ikasturte bukaera ospatzeko ondoko egitaraua antolatu du Herri eskolak biharko. Goizeko 9,30etan hasita ibilaldia izango da. Goizean zehar marrazki, eskalada, zeramika eta internet tailerak. 14:00etan bazkari herrikoia, eta ondoren herriko haur eta gazteen kontzertua, dantzari eta txistularien emanaldia, jokoak eta karaokea izango dira.



Asier Katalina:

Gipuzkoako bola joko txapelduna

Asier Katalina da aurtengo denboraldiko Gipuzkoako eta Goierriko bola txapelduna. Herritar honek jubenil mailako sariak irabazi ditu. Duela bi urte pasatxo hasi zen Idiazabalgo bolazaleak taldekoekin lehiaketetan parte hartzen eta lortutako sarien zerrenda luzea du dagoeneko.

Asierren esanetan, "gustuko dut bolotan aritzea, besteak beste entrenamenduetan sortzen den giroa atsegina da". Izan ere herriko beste gazte talde bat biltzen da ostegunero herriko bolalekuan Jose Kruz Aranburu buru dutela.

Gipuzkoako txapeldunaren erronka Euskal Herriko txapela lortzea da, eta horretarako bidean da. Dagoeneko helduen mailan parte hartzen hasi da eta sariak ere lortu ditu, azkena Legazpin: "han 80 urteko bolariarekin desentpatea jokatu beharra izan nuen eta nik atera nuen saria". Teknika eta suertea, biak nahasian dira Asierren esanetan kirol honetako sekretuak.

Gazte Asanblada

Idiazabalgo Gazte Asanblada bultzatu nahian ari da herriko gazte talde bat. Aurretik zegoen taldearen lanarekin jarraitu eta beste hainbat ekintza egiteko asmoa dute. Lehena bihar bertan, Herri eskolako festako jokoak antolatuz, bigarrena Sanjoanetan, bezperako festari itxura emanez. Gazte Asanblada-

ko kideek ostiralero egiten dute bilera gaueko 9,30etan, Kultur etxean.

Zirika Irratia

Ekainaren 26an egingo du aurtengo ikasturteko azkeneko emanaldia Zirika Irratiak. Egun horretan urrian hasitako saioen laburpena entzuko modua izango da.

Xabier Urteaga

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 943 88 98 44 BEASAIN



1974 urtean jaioetakoak, La Salle ikastetxean

1987. urtean ateratako argazkia da. Beasaingo La Salle ikastetxekoak Urbiara joan zirenekoa argazkia da, Aitor Urkiolak utzi diguna. 7 urte zituzten orduan.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Mikel Aranburu, Iñaki Osinalde, Jesus M. Arozena, Andoni Maiora, Xabier Lazkano, Igor Ormazabal, Igor Jauregi, Asier Lekuona, David de Miguel, Antton Aranburu, Aitor Mera, Mikel Zubiarrain, Iker Goikoetxea, Ioritz Etxeberria, Joseba Ormazabal, Iñigo Palomo eta Inazio Atxa (irakaslea).

Bigarren ilaran: Josu Aierbe, Iñigo Esnaola, Josu Aldasoro, Mikel Mujika, Asier Zabaleta, Aitor Arrue, Antonio Diaz, Iker Imaz, Oskar Agirre eta Unai Lasa.

Beheko ilaran: Jon Mikel Korta, Jesus M. Peña, Joseba Izagirre, Xabier Goikoetxea, Didaka Albisu, Ibon Reyes, Gregorio Sarasola, Iñigo Zeborio, Haritz Erauskin, Aitor Urkiola, Jon Ander Aranburu, Aitor Aldasoro eta Aitor Barandiaran.



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

☎ 943 16 20 16

ORDIZIA

Udan ere (uztaila abuztua eta iraila) zure frantsesa edo ingelera beharretan laguntzeko gaituzu.

Gainera: ✓ Abendurako 'Cambridge' eta 'Business' azterketarako prestakuntza.
 ✓ Ingelera eta hipikako udalekuak.
 ✓ Ingelera ikasi jolastuz.



OLABERRIAKO UDALA ALKATEAREN AGURRA

Ohitura hauxe hartu nuen ta
oraintxe bete beharra
egitasmoak izate hori
beti ere ezta txarra
lau urteak pasa ondoren
lanean tirri ta tarra
oraindik ere umore onez
badator alkate zarra.

Olaberritar senti geranak
ezin gintezke bakartu
San Joan jaiak direla eta
dezagun denak bat hartu
herritar denak agurtzen ditut
inor ez dut nahi baztatu
ongi eginak gogoan izan
eta besteak barkatu.

Nere alkatetza bukatzeaz da
ez dut asko egiterik
gehiago ez dut atal honetan
zuentzako abesterik
bainan berria iritsi dadin
ilusioz beterik
datorrenari ez diot opa
zorte ona besterik.

Pakerik gabe gure herria
geratu liteke hutsa
hemen alperrik jardutea da
alkarri tira ta bultza
ta onerako gertatu dadin
datorkigun aldakuntza
Zaindariari eska deiogun
herriarentzat laguntza.

*Alkatea
Agustin Agirre Urteaga*

Digital Serbitzuak Bertan

Negatibotik, diapositibatik, argazkitik, kamera digitaletik, zipetik, magneto-optikotik edo CD-ROMetik, 7x10etik 30x40rainoko argazki-kalitatearekin



FOTOETSE
Hemendik aurrera
Beasaingo zinemaren
ondoan ere bai

FUJIFILM S-400 CH-5

UDAL EUSKALTEGIAK

**OPORRETAN
ERE ZABALIK**



**Udako ikastaroak
Barnetegia**

1999ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA.
Azken hau uztailen eta irailean.

Erritmoak

Uztailen eta irailean, egunean lau ordu (8:30-13:00)

16 urtetik gorakoentzat.

Informazio gehiago Udal Euskaltegian.

Bulego ordutegia:

Goizez: 09:00-13:00

Arratsaldez: 15:00-19:00

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 14tik 25era



**BEASAINGO
UDAL EUSKALTEGIA**

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a

☎ 943 80 52 54

BEASAIN

UDA HONETAN, ANTZIZAR KIROLDEGIAN MURGILDU ZAITEZ UDA HONETARAKO AUKERA FRESKAGARRIENA

Uda honetan, murgildu zaitez imagina ditzakezun ariketa freskagarrienetan: Igeriketa hastapen eta hobekuntza ikastaroak, tenisa, kolonia txikia, kirol kolonia, kirol festa, kirol abentura, zaldiketa ikastaroa, abentura naturan, piraguismoa, arku, eskalada, aerobic, fitness, terapeutikoa, soinketa, mant, 3en adinekoentzako iharduera bereziak...



BEASAINGO UDALA



KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
instituto municipal del deporte

EASAIN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Juventud y Deporte



ANTZIZAR
KIROLDEGIA